

alboka topaketak

zalduondo. ekainak 5

edu zelaieta poeta
mugaldekoak

arabako campusa
euskarazko karrerak

lapueblako assa ikastola
25 urte

literatura: **joxean sagastizabal**
historia: **joseba mikel agirre**
arte: **silum soundz**
bidaia: **praha**

araba euskaraz 04

bastida. ekainak 20



aurrematrikula
epea
zabalik:
ekainaren
1tik 9ra

informa
zaitez!

902 11 20 25

www.arizmendi.ikastola.net

Lanbide egokia aukeratuko dugu

Zure ezaugarrietara egokitzen den lanbidea hautatzea funtsezkoa da. Bizitzea, anken finean, aukeratzea baino ez da. Aztertu hautabide guztiak eta ez galdu aukera Arizmendi Ikastolan.

Erdi mailako zikloak:

- Erizaintzako Laguntza Osagarriak
- Arreta Soziosanitarioa

Goi mailako zikloak:

- Ingurumen kimika
- Analisia eta kontrola
- Eraikuntzako Proiektuen Garapena eta Aplikazioa
- Kirolaren eta Ekintza Fisikoaren Animazioa

1.400 eta 2.000 ordu arteko iraupena

Lan irteera ugari

Euskera hutsean eta elebidun


Arizmendi ikastola
geurea, zeurea



orain duzu aukera euskara praktikan jartzeko

2 eta 5 orduko ikastaroak

Urrats guztiak

Gazteentzako ikastaroak

Barnetegiak: Leitza eta Lesakan

MATRIKULAZIO EPEA:

- **Uztailerako:** Ekainaren 1etik 18ra
- **Irailerako:** Ekainaren 1etik uztailaren 30era
- **Barnetegietarako:** Ekainaren 1etik, hasi baino astebete lehenagora arte.

INFORMAZIOA:

- **ARATZ EUSKALTEGIA**
Adriano VI, 18. Tel.: 945 15 43 41
aratzika@euskalnet.net
- **GASTEIZ EUSKALTEGIA**
Errege-Erregina Katolikoak, 15.
Tel.: 945 28 89 22
gasteizika@euskalnet.net
- **ZALDIARAN EUSKALTEGIA**
Badaia, 25. Tel.: 945 24 49 05
zaldiaranika@euskalnet.net

HABEren dirulaguntzaz antolatuta




**EUSKARA
PRAKTIKAK**

matrikula zaitez
udako ikastaro eta
barnetegietan
www.ikastari.com

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



elkar ulertzeko
para entendernos



ahorik aho:

EDU ZELAIETA poeta:
"Mugaldekoak", bere 2. liburua

8-10.
orr.

11.
orr.

EUSKALTASUNEAN LAGUN:
Ivan Santamaria



gaika:

12-14.
orr.

ARABAKO
CAMPUSA:
euskarazko
karrerak



GAINERA...

HAN-HEMENKA (4-7. orr.):

- iritzian (4-5)
araba euskaraz. angel olalde
josune bereziartur: azalakerietatik at
- kaleak dio (7)
'bide-horiak'
- araba bixotzian (7)
JON ZUBIAUR irudigilearen eskutik

KULTURASIALDIARI SO (24-35. orr.):

- agenda (24)
- idazleen gupila (25)
depende VI. JOXEAN SAGASTIZABAL
- historia zertzeladak (26-27)
JOSEBA MIKEL AGIRRE:
Urduña, Araban kokatutako Bizkaiko barrendegia?
- arte txokoa (28-29)
SILUM SOUNDZ kolektiboa
- bidaia (30-31)
PRAHA
- BERTAKOARI SO! (33)
ERLANTZ URTASUN historiagilearen txokoa:
Zaldiarango musulmana
- ERREZETA (33)
- geu-ren eskaintza: (34)
ekainak 15: edu zelaietaren "mugaldekoak" ikuskizuna
- komikia (35)
IÑIGO SARASOLA



18-19.
orr.

ARABA
EUSKARAZ 04:
Ekainak 20.
Bastidan.

LAPUEBLAKO ASSA
IKASTOLA,
25 urte

15-17.
orr.




ALBOKA
TOPAKETAK
Ekainak 5.
Zalduondon



20-23.
orr.

Azala ...



Euskal Herriko albokari guztiek hitzordua dute hila-
ren Sean Zalduondon. Izan ere, bertako kultur elkar-
teak eta Otazuko Sorginetxe kultur elkarteak antola-
tuta, Alboka Topaketa Herrikoia egingo da.
Aurtengoa hirugarren edizioa da: iaz Albainan izan
zen, eta duela bi urte Otazun.

argazkia: EDORTA SANZ


>GEU

GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)
Geu aldizkariko taldeak egin, bideratua eta kudeatua
Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a. - 01008 Gasteiz
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

- Zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate
Aldizkariko batzordea: josune veleaz de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez
Kazetariak: josune veleaz de mendizabal, edurne begiristain, saioa fdz. de arangiz
Argazkiak: edorta sanz
Bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate
Testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate
Itzulpenak: edurne begiristain, estitxu breñas, azitzi
Maketa: patirke sanz eta david alvez
logoa: io grafix
komikia: iñigo sarasola
Kolaboratzaileak ale honetan: josune bereziartur, angel olalde, maite lekue, jon zubiaur, joxean sagastizabal, joseba mikel agirre, erlantz urtasun eta diocesanas-mendizorrotzak ostarlaritza eskola.
Publizitatea eta Banaketa: edurne begiristain
Publizitate arloko laguntzaileak: maite lekue
Sustapen-harpidetza saila: edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale kopurua: 2.500
LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egin dago. Geu aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:





ARABA EUSKARAZ 2004

Toloño magalean ekainaren 20an



Aurtengo Araba Euskaraz **Bastidan** egingo da ekainaren 20an. Bertako ikastolak, 7 umerekin hasi zenetik, 25 urteko ibilbidea osatu egin duelako, batetik, eta egun dauden 134 ikasleek dituzten beharrak asetzeko behar-beharrezkoa den ikastola berria eraiki ahal izateko, Araba Euskaraz ekar dezakeen etekinaz baliatuz proiektua martxan jarri nahi delako, bestetik. Bost kilometroko ibilbidea eratu dugu, oso inguru erakargarrian, Toloñoren magalean dagoen San Gines parkera joan-etorrian hain zuzen.

Aurrekoa garrantzitsua izanik ere, are garrantzitsuagoa da Araba osoan eta, are gehiago, mugan dauden herri txikietan Euskararen berreskurapenak dituen beharrak eta gabeziak gainditzeko egin beharreko lana. Euskarak denon beharra du eta horixe azpimarratu nahi dugu. Gaur egun Araba herrialdean premia handiak ditugu eta hizkuntzak berak onarpena badu ere egoerak berak aginduta Iparraldean eta Nafarroan dauden beharrak ditu. Lan handia egiten ari da zalantzarik gabe eta euskaltzale guztioi esker lortzen ari da helburua.

Bastida herriaren kokapenak ere badu garrantzi handia, izan ere, mugan dagoen herri izanik euskararen berreskurapena zailago bihurtzen da. Bastida izenak zeresana badu. Bastida bastioia da eta horixe da lortu behar duguna, hots, euskararen bastioia; herriko jendeak eta inguruko herritarrek euskara ikasteaz gain, euskaraz bizitzeko aukera eskainiko duen bastioia hain zuzen, eta hori da, besteak beste, denon artean erdietsi behar duguna. Araba Euskaraz erreferente bihurtzea, herritarren laguntzari esker, eremu erdaldun honek ere, urrats sendoak ematea ahalbidetuko duena.

Bastida ikastolara inguruko herrietako umeak hurbiltzen dira eta erantzun egokia ematen saiatzen ari dira ikastolan daudenak. Proiektua onuragarria da eta behar duen bultzada eman behar diogu denon artean. Egun erabiltzen ari diren lokalak aspaldikoak izateaz gain, baldintza minimoak ez dituzte betetzen. Gelak

txikiak dira egoerak behartuta erdibitu behar izan direlako egondako demandari erantzun ahal izateko; irakasle-gelarik gabeko ikastola honek duen proiektua aurrera ateratzeko edifizio berri baten premia duela ukalezina da.

Ekitaldi ugari egongo dira ekainaren 20an, adin guztietako herritarrei zuzenduta, umeengandik hasita helduenganaino, eta gainera paraje zoragarriaz gozatzeko aukera ematen duen inguru ederrean. Eguna, beraz, egoki igarotzeko parada izango dugu denok eta, bide batez, euskarak urrats berriak eman ditzan Bastida ikastolari laguntzeko aukera izango dugu.

Urte oso baten gailurra izango da ekainaren 20an egingo den Araba Euskaraz jaia. Herritarren ilusioa puztuko duen jaia zalantzarik gabe, aurrerantzean nabaritutako dena. Araba Euskaraz ez da ikastola batek antolatutako egun bat. 2003ko udan hasita ekitaldi ugari egin dira eta egunaren beraren prestaketa lanetan ari garenon asmoa eskaintza zabala egitea da. Bitarteko gutxi agian baina ilusioa eta kemena ez da falta.

"Uzta hartu, uztartuaz" lelopean antolatu da aurtengo edizioa. Nekazariak bezala, denok dakigu zein den uzta garaiaik duen garrantzia. Mahats bilketan jendearen partehartzea behar-beharrezkoa da. Uztak bere garaia du eta ez da egokia garaia alferrik pasatzen uztea. Horixe bera gertatzen zaigu euskararekin, ezin baita denbora alferrik igarotzen utzi eta berandu izan baino lehen urrats berriak eman behar ditugu. Dena dela, ez da hori bakarrik, urratsak ematean denok gara beharrezko eta norabide berean eginez gero arinago lortuko dugu helburua. Anima zaitetze, bada, eta ekainaren 20an Bastidan duzuen zita aprobetxatzea.

Angel Olalde,
Araba Euskaraz-eko koordinatzailea



**josune bereziartu
eskalatzailea**

Azalkerietatik at

Iragan astean bihotzak sekulako itzulipurdia eman zidan, nire begiek Ellie Chevieux lagun min eta eskalatzaile apartaren erailketaren berri eman zioten unean.

Internetek zera zioen: "Argazki bat gehiagorengatik mendebaldeko bi lagun harrikatu dituzte". Berriaren iturrian klikatu nuen; Le Matin egunkari suitzarraren bertsio digitalean; eta egia zen; Ellie gure artean ez zegoela argi eta garbi esaten zuen.

Atsekabetuta, indargabetuta, lotsatuta, harrituta, triste... biok Suitzan ditugun lagunekin hitz egin beharra nuen. Kaka zaharra, Josianne lanean dago! Egia da, kitarra klaseetan egongo da... Francoisekin saiatuko naiz... ezta ere! Nire sentimenduak gertukoekin baino ezin nituen partekatu. Baina zein mundutan bizi ote gara? Nola da posible jendea harrikatzea? Behin eta berriz neure buruari galdetzen nion, eta Ellieren gorputz hauskorak harrikadak jasotzen zituela nire burutik kendu ezinean nengoen.

Arratsaldea igaro zen, eta sakeleko telefonoak jo zuen, 0041 aurrizkiak Suitzatik deitzen zidatela adierazten zuen. Kaixo Josune, Josianne nire lagun minak agurtzen zidan. Albistea hori zen, baina zentzugabekeria azkar horretan itxaropen izpi bat zegoen, eta une horretan Ellieren aita Kabulera bidaiatzen ari zen bere heriotza baieztatzeko eta gertatutako guztia bertatik bertara jakiteko. Sortutako argi izpia zen ustez eraildako mendebaldeko bi lagun gorpuak agertu ziren tokian Ellieren pasaportearen modu misterioitsu batean agertu zela. Itxura guztien arabera, desitxuratutako eta odoleztatutako bi pertsona horietako bat bera zen.



Zorigaiztoko albiste hura ezagutu eta egun gutxira Elliek horren berri izan omen zuen eta berehala bere gurasoei Suitzara deitu zien, bizirik zegoela esateko. Uf! Hau ezustea! Francoisek albiste onaren berri mezu baten bidez eman zidan eta, zorionez, guztia kazetaritza akats soil batean geratu da.

Abiadurak Internet-en ahultasunez ohartzeko

balio izan digu oraingoan. Sareetatik sareena denak bere buruari zangozaba jarri dio... eta gure eztropezua eragin du. Nik ere aurretik akats itzelak eta uste faltsuak sinetsi ditut idatzizko edo entzunezko hedabide batean eta bestean agertutako iritzia ontzat emateagatik. Orduan, edozein teoria zalantzan jarriko nuela eta nire kabuz arrazoituko nuela esan nuen, nire filosofia irakasleak irakatsitakoa gogoan izanda. Alabaina, argi dago gizakia dela harri berarekin birritan eztropezu egiten duen animalia bakarra, eta noski, ni

espezie horretakoa naiz. Gainera, gero eta zailagoa egiten zait zalantzak izatea, laugarren botereak eragindako artalde goxoari jarraitzea baita bizi dugun gizarteak inposatzen diguna.

Baina zeozerri eskerrak eman behar badizkiot, mendian eskaladaz eta toki xarmangarriez inguratuta nagoen bolada horiei da. Une horiek aukera ematen didate egoerak egunerokotasunetik urrunago dagoen ikuspuntu batetik ikusteko, eta mundu "modernora" iristen naizenean nire belarrietara heltzen diren albisteen, egoeren, bizipenen, istorioen... azalean gera ez nadin eta aztertzen saia nadin laguntzen didate.



arabarrok euskarari BAI


www.euskoalkartasuna.org



www.gazteabertzaleak.com



Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aitzogile kalea (KUTXI), 23



Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko
artzean) Tfnoa: 945 25 03 52

> GEU
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA
PUBLIZITATEA
945 22 21 53

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 - GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97




gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna

"EL CLARETE"

Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 - GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

"BIDE-HORIAK", BIZIKLETETARAKO ERREI BERRIAK?

Bizikletak udarako direla dio pelikularen izenburuak. Hala ere, asko dira Gasteizen urteko edozein sasoitan garraibide apal, ekologiko eta alternatiboa aukeratzen dutenak, hiri lau honen karriketan zehar ibiltzeko. Oraingoan Gasteizko errepideetan agertutako marra horien aferaren inguruan hiritarrek duten iritzia jasotzeko kalera atera gara. Hemen jasotakoa:



Pablo Diaz, tabernaria

- 1.- Txapuza bat iruditzen zait, oso arriskutsua dela uste dut.
- 2.- Ez, ez dut erabiltzen.
- 3.- Lehen zegoen bide-goria oso ona ez izan arren, behintzat orain jarri dutena baino askoz hobeto dagoela uste dut. Autobusetarako bide berezi bat jarri badute, ez dut ulertzen zergatik ez duten jarri beste bat txirrinduetarako.



Xanti Sierra, injeneru teknikoa



- 1.- Ez du batere arazoa konpontzen. Erabakirik errazena hartu dute, errepidea margotu eta listo. Erakusleihu bezala egin dutela uste dut.
- 2.- Behin erabili nuen eta ez du txirrindularien segurtasuna guztiz bermatzen.
- 3.- Konponbidea benetako bide-gorriak jartzea izango litzateke. Tranbia joango den lekutik bide-gorriak jar litzakete.

1. Zer iruditzen zaizu Udalak jarritako txirrinduetarako bide berria?

2.- Erabiltzen al duzu?

3.- Zein izan daiteke txirrindularien babesa bermatzen duen bide egokia?

Itziar Hernaez, hezitzailea



- 1.- Ideia gustatzen zait, berez Gasteizen ez dagoelako ibiltzeko bide-gorri asko. Dena den, ez dakit errespetatuko duten.
- 2.- Oraindik ez dut erabili, baina probatzeko asmoa badut.
- 3.- Honek funtzionatzen badu, nik uste dut ondo egon daitekeela. Dena den, errepidearen erdian dagoenez, kotxeen pasabidea oztopatzen duela ikusi dut, beraz, gidarientzat eta txirrindularientzat arriskutsua izan daiteke.




Oskar Astola, langilea




- 1.- Printzipioz ondo baina nik uste dut ez duela ezertarako balio, kotxeek ez dutelako errespetatzen.
- 2.- Nik erabiltzen dut ondo datorkidalako.
- 3.- Oso erraza da. Eskolan eta autoeskoletan gomendioak ematea eta arau batzuk eta errespetua irakastea izango litzateke konponbidea. Beste herrialde askotan jendeak errespetu gehiago izaten du txirrindulari eta oinezkoekiko. Bideak berdin dio, kotxeak oso azkar badoaz. Beraz, konponbidea heziketan dagoela esango nuke.

Araba bixotzian

Jon Zubiaur





EDU ZELAIETA:

MUGALDEKOAK

Josune Velez de Mendizabal

argazkiak: edorta sanz

Gasteiztarra jaiotzez bada ere (1.973an) Edu Zelaietak zainetan daraman nafar odolak orain arteko lanak eta bere poeta eta ikertzaile ibilbidea ziprztindu ditu. Berakoa den bere aitek ez zion euskara irakatsi Eduri eta gazteak azaltzen duenez, “hutsune bat sumatu nuen eta asetu nahian Euskal Filologia ikasten hasi nintzen”. Ondoren, dialektologian espezializatu eta egun Baztan-Bidasoako hizkeren azterketaren inguruko tesia egiten dihardu. Norberaren bizitzak eta errealitateak berak orori jartzen dizkioten mugak gainditu nahian, oraingoan ere bere bigarren poema liburuan (lehenengoa, “Jendakiak urruneko familiatan”) Bidasoaren ertzero jo du idazleak: “Mugaldekoak” (Susa argitaletxea).

-Noiz hasi zinen poesia idazten?

-Egia esateko berandu hasi nintzen, duela bost bat urte. Orduan hasi nintzen serio samar idazten nahiz irakurtzen. Hamazapi urterekin kajoian gordetzen diren gauzak idazten nituen. Garai hartan modu anarkikoan idazten nuen, hau da, oldarka, ia-ia bulkadaz. Ondoren, zenbait irakurketa egin ostean hori, kakotxen artean, normalizatu zen eta gero eta gehiago gustatu zitzaidan idaztea eta orain oso gustura hartu dut.

-Irakurtzen hasi zinela diozu, beharrezkoa al da aurrenekoz praktika hori ondoren idazteko?

-Niretzat dudarik ez dago. Hor eztabaida dago, hau da, irakurtzen baduzu zure originaltasuna kutsatzen da irakurritakoaz baina bestaldetik, nondik sortzen duzu irakurtzen ez baduzu? Hor dago tradizioa, hitzaren zentzu zabalean. Zer da tradizioa? Orain arte egin den guztia da tradizioa. 2004.ean gaude eta egungo gauzak egiteko ere orain arte egindako gauza guztietan oinarritu behar duzu nahitanahiez. Nik gogoeta hori ez nuen egiten 15 urte nituenean, orduan zegoenarekin apurtu behar zela pentsatzen nuen, baina gero konturatu nintzen apurtzeko lehendabizi jakin behar duzula aurretik zer dagoen, bestela nola apurtu horrekin? Literaturan, ikerkuntzan bezala, ordu arteko guztia aprobetxatu beharra dago aurrera egin ahal izateko, ez errepikatze, aurreko akatsak ez egiteko eta hortik ikasteko.

-Tradizioa gaur ere gauzatzen bada, zu ere poesian tradizioa izateko bidean zaude, edo?


-A zer nolako galdera! (barre egiten du)...

-Beste modu batez galdetuta, Edu Zelaieta poeta definitu dezakegu?

-Nik ere horrekin komerkiak ditut..., baietz ematen du baina nik arazoak ditut etiketekin... besteen etiketekin, baita nire etiketekin ere... Poesia idazten dudan neurrian poeta izango naiz eta dialektologia egiten dudan neurrian dialektologoa, baina inongo zentzu elitista gabe... Orain honetan apur bat gehiago sartu naizela eta nire bigarren poesia-liburua atera dudala baietz esan daiteke... dena den, nor naiz ni? Poesia idazten duen bat, Zapateneo-n militatzen duen bat, dialektologia egiten duen bat, euskalgintzan aritu den bat... Alde asko dago eta nik ez diot pluraltasunari uko egiten, kostatzen zait-eta gauza bakar edo bitan nire burua definitzea.

-"Mugaldekoak" da zure bigarren poesia-liburua, zertan datza?

-Liburua, dena bezala, oso lotuta dago bizitzarekin. Gasteiztarra naiz eta aita Berakoa dut, baina familiarekin harremanak puxkatu eta nik ez nuen euskara ikasi. Hortaz, nik beti sumatu dut hutsune hori, eta gabezia motorea da, Oteizak zioen bezala, eta hutsuneak bizitza sortzen du eta niri ere horrela gertatu zitzaidan. Haren bila joan eta Euskal Filologian hasi nintzen lehenengo, eta gero Dialektologian jarraitu dut. Karrera bukatu eta beka bat eman zidaten Sarako euskara aztertzeko. Ondoren, liburu honetan muga hartu dut abiapuntu, Baztan-Bidasoako muga kontuak aipatzen ditut bertan. Amets egitea gustatzen zait baina lurra joz eta kontu soziologikoetatik jo nuen. Ideia aberasten joan zen eta azken urte hauetan Marokora, Mexikora, Hondurasera, Saharara eta abar, egin ditudan bidaia inportanteek bestelako muga emozionaletara eraman naute. Mugaren kontzeptua zentzu positiboan nahiz negatiboan erabili dut, polisemia, oztopoak, kultura ezberdinek elkarrekin topo egiten duten tokia...



"MUGALDEKOAK"

Guztira lau atal ditu liburuak. Edu Zelaiek nabarmentzen duenez, "oso atal finkatuak dira, kasik mugaren konpendio txiki bat osatuz, eta joko asko dago honen harira liburuan. Mugak ere erlazionatzen dira era hortaz, lehendabiziko atalean egon beharreko zerbait beste ataletara garraiatu dut nahita; horrelako iruzurrak eta tranpatxoak ere badaude".

-MUGALDEAN izenekoak Bidasoa inguruari erreferentzia egiten dio. "Bertako pertsonaiak eta ohiturak azaltzen diren arren, ez da irudi kostunbrista bezala jorratzen".

-URRATUAK. Bigarren atal honek gizartea du protagonista. "Mugak hausteko jaio gara baina batzuetan

ezin, dio mezuak, eta horrela gabilta, guk errealitateari eragiten dizkiogun urratuak jasotzen ditut poesian, inmigrazioa, borroka, multikulturalitatea..."

-MUGARRI LUZEAK da Araba eta Gipuzkoa artean dagoen Elgeako mendizerrako Eduk gustuko duen leku baten izena. "Izugarri mugarri altua eta handia da -dio-. Kanpotik barrenerako bidaia egiten da atal honetan, emozioak, sentazioak, amodio, desamodio poemak..."

-MUGALDEKOA: azken hau oso lotuta dago sorpresa faktorearekin. Aurreko atalak biltzen dituen istorioa da, prosaz egina; benetakoa ez izan arren, gertatutako istorioa izan zitekeen. "Irakurleak deskubritu beharko du zertaz diharduen azken atal honek", azpimarratzen du Zelaiek.

IRVSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

ITYRRIETA



Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO


**OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHAR
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK**

**EKAINAREN 15ean, PARRALEN,
GEU ALDIZKARIA & ELKARTEAREN
ESKUTIK. 20.00etan.**

"MUGALDEKOAK" KULTUR EMANALDIA

Poema-liburua ez dator bakarrik. Edu Zelaietak emozioz kontatzen du bere lagun eta musikari Beñardo Goietxe eta Raul Garciarekin **GEU ALDIZKARIA ETA ELKARTEAREN** eskutik **ekainaren 15ean** Parralen, 20.00etan, aurkeztuko duen kultur emanaldia. "Liburua oinarri hartuta emanaldi bat prestatu dugu, izen berekoa, hain zuzen ere Mugaldekoak", azaltzen du Zelaietak. Poemek, kantu poemek eta kantek osatzen dute espektakulua. "Tonu umoretsua ere badauka, izan ere, zenbaitetan zerra bat erabiliko dugu musika sortzeko -nabarmentzen du-. Frantziako eskualde batean aizkolariek horrela egin ohi zuten. Egurra egitera joan eta aspertuta zeudenean edota atsedenaldietan zerrari buelta eman eta musika soina ateratzen zioten". Zelaietaren proiektu pertsonala, beraz, lagun taldera egokitu da emanaldian: "Hau taldeko lana da eta bakoitzak bere partea jarri du, horretarako liburuan agertutakoa moldatu behar izan dugu arinagoa izan dadin".

Informazio gehiago: 34. orrialdean



Argazki - Estudioa
Erramun
Heredia Fournier, 23
Irua, 48.102
01006
Askatasun kalea, 5
Irua, 48.102
01004

Dalvez
argitaratzaileak
Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa. 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinu.euskalnet.net

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO.
143883
GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

edurne begiristain

argazkia: edorta sanz



IVAN SANTAMARIA, kazetari egoskorra

Gaztea izanagatik (27 urte ditu) kazetaritza munduan esperientzia dezenteko mutila da Ivan Santamaria gasteiztarra. Duela sei urte Euskaldunon Egunkaria-n bekadun moduan hasi zenetik, buru-belarri aritu da kazetari lanetan: kirola egiten aurrena, eta kultura eta ekonomia sailetan egun. Bere lanbidea gustuko duela dio, batik bat, errealitatearekin harreman estua izateko aukera ematen diolako. Bere buruaz dio burugogorra dela eta eztabaidatzea asko gustatzen zaiola. "Hala ere, urratsak ematen ari naiz lasaigoa izateko", gaineratzen du.



- **Duzun biziorik handiena?** Bidaiatzea.
- **Eta bertutea?** Bertutea eta akatsa izan daiteke, baina oso egoskorra edo burugogorra naizela.
- **Bizitzari zer eskatzen diozu?** Osasuna niretzat eta ingurukoentzat.
- **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?** Agintearen gehiegikeriak.
- **GEU elkarte eta aldizkariaren berririk bai?** Bai, hastapenetatik.
- **Egunkari bat?** Euskaldunon Egunkaria.
- **Telebista saio bat?** Modan dagoenez... Vaya Semanita.
- **Jaki gozoren bat?** Pasta asko jan ohi dut.
- **Fobiarik, beldurrik?** Guardia Zibila.
- **Oporrak non eta zertarako?** Edonon, mundua oso handia baita. Batez ere deskonektatzeko eta kultura eta gizarte berriak ezagutzeko.
- **Eta nora ez zinateke joango?** Oporretan Israelera sekula ez, bertako egoeragatik.
- **Liburu bat?** Aingeru Epaltzaren 'Rock and Roll'.
- **Kolore bat?** Beltza gustuko dut, baina arropa gehiena urdina daukat.
- **Musika talde bat?** The Clash eta Kortatu.
- **Zer da Gasteizek duen onena?** Herritxoa ematen duela eta horrek gertutasuna ematen du; erraza da jendea ezagutzea eta topatzea.
- **Eta txarrena?** Hurbiltasun horren ondorioz guztiok elkar ezagutzen dugula, eta ohikoa dela txutxumutxuak sortzea norberaren gainean.
- **Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?** Orokorrean ez.
- **Amets bat?** Euskal Herri aske batean gizarte aske batean bizi ahal izatea.
- **Amesgaizto bat?** Esklabutzan edo askatasun fisikorik gabe bizitzea, eta maite duzun pertsonarekin ezin egotea.
- **Zer eskatzen du herriak?** Independentzia eta sozialismoa, baina ez digute kasurik egiten.
- **Kazetaria izaki... zein albistek utzi dizu arrasto gehien?** Fernando Buesaren hilketak (atentatutik 200 metrora nengoelako eta albistearen jarraipena bertatik bertara egin behar izan nuelako), eta Euskaldunon Egunkaria-ren itxierak.



Arabako Campusa Euskaraz ikasteko aukera

Udako oporren hasierarekin batera,

Euskal Herriko Unibertsitatearen matrikulazio epea hasten da. Honekin,

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatu duten ikasle asko garrantzi handiko erabakia hartzeko beharrean izaten dira, unibertsitatean gauzatuko dituzten ikasketak aukeratzea, hain zuzen. Hautatze horretan, ikasketak

burutuko dituzten hizkuntza ere hautatzea inportantea izaten da, baina kasu askotan, euren ikasketak guztiz euskaraz egiteko zailtasunak topatzen dituzte bidean, batik bat, irakasgai guztiak ez direlako euskaraz ematen.

Hona hemen Arabako Campusaren euskarazko eskaintza

Orain dela 26 urte inguru euskarazko lehenengo titulazioa ezarri zen Arabako Campusean, Euskal Filologiako Lizentziatura, hain zuzen. Arraroa badirudi ere, soilik karrera osatzen zuten irakasgaien %25 euskarazkoa zen. Denboraren poderioz, bertan eskaintzen diren titulazioen egoera hobetuz joan da eta euskarak gero eta garrantzi handiagoa lortu duen panorama bat ikus dezakegu.

Euskarazko karreraren egoera

Egun, Arabako Campuseko titulazio desberdinen egoera zeharo diferentea da. Euskara hutsean bukatu daitezkeen titulazio bakarrak Magisteritza Eskolako hiru karrerak dira, hau da, Heziketa Fisikoa, Lehenengo Hezkuntza eta Haur-Hezkuntza.

Farmaziako fakultateak eskaintzen dituen titulazioen artean, berri, Farmaziako Lizentziatura eta Giza Dietetika eta Elikadurako Diplomatura dira eskaintza gehien ematen dutenak, irakasgaien %64 eta %60 euskarazkoak baitira, hurrenez hurren. Bestetik, Ingurugiro-Zientzietako Lizentziaturaren %22 egin daiteke euskaraz; %8 bakarrik Elikagaien Zientzia eta Teknologiako titulazioaren kasuan.

Filologia, Geografia eta Historia-Fakultatean euskararen presentzia nabarmenagoa da, Artearen Historia eta Itzulpen eta

Interpretaritzako Lizentziaturak kenduta, Filologia guztiak, Historia eta Geografiako titulazioak ia osorik ematen baitira euskaraz. Hau da, derrigorrezko iraskasgai guztiak zein ikasleak hartu behar dituen hautazko beste. Honek ez du esan nahi, ordea, hautazko guztiak euskaraz ematen direnik.

Industria eta Topografiako Injinerutza Teknikoko Unibertsitate Eskolaren egoera oso bestelakoa da. Mekanikaren Berezitasuneko Industri Injineru Teknikoaren iraskasgaien %95 euskaraz aurki daiteke, baina tamalez, gainontzeko berezitasunetan ez da horrela gertatzen; Elektrizitatea, Elektronika eta Kimikan %2 da bakarrik euskarazkoa. Topografiaren kasuan, berriaz, soilik materiaren %30 ikasi daiteke gure hizkuntzan. Azkenik, Gestio-Informatikako Injineru Teknikoa eta Industria Antolakuntzarako Injinerua titulazioetan bakarrik Euskara Teknikoa iraskagaia hautatzeko aukera dute ikasleek. Egoera honen aurrean, "gure ikastetxeak aurrera begira duen erronka nagusia Topografiako ikasketak guztiz euskalduntzea da, %30etik %100era pasatzea, hain zuzen", dio Ugutz Garitaonaindia, Injinerutza Eskolako Euskara Batzordekideak.

Gizarte-Lanerako Eskolan eta Enpresa-Ikasketen Eskolan ere eskaintza nahiko murrizta da; lehenengoan, astiro-astiro doa euskararen ezarpena, orain dela bi urte inguru ezarri zelako euskal adarra. Bigarrenean, aldiz, egun ia ez dago euskarazko eskaintzarik.

Beraz, datu hauek ikusirik zeozter gehiago egin daitekeen

sentsazioa dute askok; hala ere, Xabier Etxaniz Magisteritza Eskolako zuzendariaren iritzia beste bat da: "Urte gutxitan egon den aurrerapena azpimarratzea inportantea da. Batzuentzat gutxiegi aurreratu da, baina nik uste dut, pixka bat atzera begiratuta, ikaragarritzko aurrerapausoak eman direla. Magisteritza eskolan, esaterako, orain dela 20 urte irakasle euskaldunak %20 ziren, orain ordea, ia %60 gara. Beraz, nondik gatozen ikusi beharko genuke".

Irakasle euskaldunak

Gero eta irakasle euskaldun gehiago dago Arabako Campusean, baina irakasle erdaldunen kopuruak handiagoa izaten jarraitzen du. Guztira, 446 irakasle dira Campusean, hoietatik 136 euskaldunak izaki. Euskarazko karreren eskaera gero eta handiagoa izan arren, irakasle elebidunen kopurua pixkanaka doa gora. Edorta Martinez de Marigorta Farmaziako dekanordearen aburuz, "irakasleen euskalduntzeari dagokionez, alde handia dago Irakaskuntza unibertsitario eta ez-unibertsitarioaren artean, denbora tarte berean unibertsitatea askoz motelago ibili delako". Xabier Etxanizek egitate honen arrazoiak azaldu dizkigu; "Batetik, unibertsitatearen autonomia dela eta, ez dago irakasleak euskalduntzera behartzeko Erret Dekreturik, irakaskuntza ez-unibertsitarioan gertatu bezala. Bestetik, hauen ordezkapena egitea askoz zailagoa da hezkuntza unibertsitarioan, jakintza arlo batzuetan ez dagoelako jenderik". Horregatik, EHUn soilki irakasleen %32 euskalduna



Ugutz Garitaonaindia, Xabier Etxaniz, Edorta Mtz. de Marigorta eta Ricardo Gomez

den bitartean, Hezkuntza ez-unibertsitarioan %70ra heltzen dira.

Bestalde, Xabier Etxanizek esan bezala, "egun unibertsitatean lan gehien duten irakasleak euskaldunak dira; ikasleen euskarazko eskaera handia izatean, hauen irakats-zama handiagotu da, hau da, klase gehiago eman behar dituzte eta ia ez dute ikerketarako denborarik". Arrazoi horregatik, datorren ikasturtean abian jarri nahi den Euskararen Erabilerarako III plangintzaren ildo nagusia arazo hori konpontzea izango da, hau da, "irakasleen egoera hobetzea da hurrengo planaren helburua. Honela, hobetzen den neurrian irakaskuntzaren kalitatea ere hobetuko da", azaldu du Xabierrek. Horrez gain, testugintzari ere garrantzia emango zaio hurrengo plangintzan. "Testuliburuaren kontua nahiko problematikoa da, batetik, ez direlako batere komertzialak eta bestetik, liburu horiek egiteko jendea behar dugulako, lehen esan bezala, irakasle euskaldunak oso lanpetuta daudelako", dio Xabierrek.

Ikasleen jarrera baikorra

Ikasleei dagokienez, euskararekiko duten jarrera baikorra dela esan daiteke. Gero eta gehiago dira Selektibitatea euskaraz egitea aukeratzen dutenak, %45 inguru. Gainera, unibertsitatean euskarazko titulazioen eskaeraren gorakada bat sumatu da azken urteotan. Farmaziako Fakultatean, esaterako, ikasleen %28 matrikulatu zen euskarazko irakasgaietan 1999/00 ikasturtean. 2003/04an, oster, %41era heldu da zifra hori. Hala eta guztiz ere, Xabierrek puntu honetan hausnarketa bat egin behar dela uste du. "Gazte jendearen artean aldaketa bat egon da. Gure garaian oso kontziente ginen militante izan behar ginela. Egun, aldiz, uste dut jende asko soilik eskatzen datorrela,



ezer ere eskaini gabe. Gure ikasleak ere kontziente izan behar dira beraiek ere lan egin behar dutela normalizazio prozesu horretan".

Beraz, unibertsitateko hainbat titulazioren euskalduntzea bide onean dagoela esan daiteke, izan ere, egiteko bidea luzea da oraindik.

ERAGINIK IZAN AL DU UNIBERTSITATEAK GASTEIZKO EUSKARAN?

• Ricardo Gomez, Arabako Campuseko euskara zuzendaria:

"Campusa egotea onuragarria izan da Gasteizerako. Kanpoko jendea etorri da eta nolabaiteko euskal giroa sortu du. Adibidetzat, hemen bertan eratu den idazle taldea aipa daiteke. Beraz, Campusa garrantzitsua izan da hiriarentzat".

• Xabier Etxaniz, Magisteritza Eskolako zuzendaria: "Egia da, baina Campuseko errealitatea ez da Arabako edo Gasteizko errealitatea. Hala ere, uste dut Gasteizen euskaldun asko dagoela, baina tamalez ez dute elkar ezagutzen".

• Ugutz Garitaonandia, Injinerutza Eskolako Euskara Batzordekidea:

"Unibertsitatean kalean baino euskal giro handiagoa sumatzen dugu. Lehenengo eta bigarren hezkuntzan, hemen baino euskarazko giro handiagoa dago eta horregatik mezu positiboa zabalduko nuke; D ereduan ikasten duten guztiak euskarazko titulazioak hartzera animatuko nituzke, finean, matrikulazio egitean gure hizkuntzaren aldeko presioa egin dezaten. Nire aburuz, Campusean euskararen aldeko lana egiten ari gara, lerro berriak euskalduntzen.

Ikasle Kontseiluaren Koordinakundea

Talde honen aburuz, euskararen errealitatea Arabako Campusean beste bat da. Batetik, Euskararen Normalizaziorako Plangintzak guztiz betetzen ez direla dio, eta betetzekotan etorkizun luzean unibertsitatearen egoera soziolinguistikoa ez zela osoki euskalduna izango uste du. Bestetik, Campuseko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren gehiengoa erdalduna dela salatu du, eskubide linguistikoak betetzen ez direlarik.

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz


Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



Hitza, bihotzaren giltza:

**GORA EUSKADI
ASKATUTA!**

LAPUEBLAKO ASSA IKASTOLAK 25 URTE

BIDEARI
GOGOZ EKINEZ

Joseba Llano, ikastolako zuzendaria

“Txiki izatetik, egitasmo handia izatera pasa da”. Hitz horiek ederki asko definitzen dute Lapueblako Assa Ikastolako ibilbide oparoa. Duela 25 urte jaio zenetik, apurka-apurka hazten joan den ikastola da. Bidea ez da samurra izan, hala ere, eta hamaika oztopo gainditu behar izan ditu 25 urte bete ahal izateko. Hemendik aurrera ere bestelako erronkei aurre egin beharko die, baina gogotsu eta ilusio handiz.

Arabako Errioxako Lapuebla herrian dago Assa Ikastola. Egun eskualdean dagoen ikastolarik indartsuena dela esan daiteke, hoguei herri desberdinetako 290 ikaslek osatuta baitago. Aurten 25 urte bete ditu; mende laurdena kalitatezko hezkuntza eskaintzeko bidea eginez. Euren seme-alabek euskaraz ikastea nahi zuten guraso talde baten ekimenez sortu zen 1979an. Arabako Errioxako beste herri batzuetan ere (Oion, Bastida, Lantziego, Biasteri eta Eltziegon) ikastolak sortzeko ahaleginak egin ziren garai

hartan. Eskualdean euskara berreskuratzeko aurrerapauso garrantzitsua izan zen hura, nahiz eta horietako egitasmo batzuk aurrera egin ez.

Lapueblan, ordea, familia eta auzokide askok jo eta su heldu zioten proiektuari, beraien seme-alabek beren herriko hizkuntza eta kultura jasotzea nahi zutelako. Hasierako ikastola nahiko txikia zen: herriko 2tik 4 urte bitarteko ume guztiak bere magalean hartzen zituen, 22 ume inguru denera. Urtez urte ikastola

sendotzen joan zen, pauso eta erabaki desberdinak hartuz, erronka ugari aurre eginez... Joseba Llanok, egun ikastolako zuzendaria denak, eta Aitor Urkizak, aurretik zuzendari izandakoak, Assa Ikastolako historia ongi ezagutzen dute, eta hasierako garaietako zailtasunez eta gaurko erronkez mintzatu zaizkigu.

Assa Ikastola jaio zen garaian egoera sozial eta politiko berezia bizi zen Euskal Herri osoan. “Errekonkistako gazteluekin bezala gertatu zen”, dio Urkizak. Izan ere,

ASSA IZENA, NNDIK ETORRIKO OTE?

Batek baino gehiagok galdetuko du nondik ote datorren Assa Ikastolaren izena. Bada, gaur egun Assa Biasteri-Logroño errepide ondoan, Lantziegorako bidegurutze inguruan, aurki dezakegun etxe multzo bat da, Lantziegoko auzoa, hain zuzen. Baina ez da beti horrela izan, eskualdeko historian leku garrantzitsua izan baita. II. mendearen erdialdean Ebro ibaia zeharkatzeko Mantible zubia eraiki zuten, eta zubi hark garrantzi estrategikoa eman zion lekuari. Zubia eta bidea zaintzeko gaztelu bat egin zuten. Gaztelu hori agiri zaharretan Assa, Asa, Ausa, Acsa, Axa izenekin azaltzen da.

1169rako biztanle gehienek Biasterira jotzen dute, eliza, baseliza bilakatuta, Assako Andra Mari izenarekin mantenduz. Harrez gero, inguruko herri guztiek gurtuko dute ama birjina hori, eta bertaraino maiz joango dira otoitz egitera edo erromerian. Historia hori ikusita ez da harritzekoa ikastolari Nuestra Señora de Assa Ikastola izena eman izana, nahiz eta denboraren poderioz abizena laburtu eta ASSA Ikastola bihurtu.



Aitor Urkiza, ikasketa-burua, Joseba Llanorekin

euskara galduta zegoen tokietan ikastolak sortzen ziren hizkuntza berreskuratu ahal izateko, eta halaxe sortu ziren, batik bat, Arabako hegoaldeko ikastolak eta Nafarroako Erriberakoak ere.

Franco osteko garaiak ziren haiek, eta euskara nahiko egoera makalean zegoen Arabako Errioxan. "Egia esateko, ez zegoen egoerarik. Orain egoera okerra bada, garai hartan ez zegoen deus", azaldu digu Llanok. Franco hil eta gero galdera bat sortu zen guraso askorengan,

hil ala biziko kontua izan da", dio. "Araba Euskaraz zuloak estaltzeko nahiko ongi etortzen zen", gaineratu du Llanok. Hala, aurreneko ikastolen festan bildutako diruarekin eraikinaren beharrei aurre egin ahal izan zitzairen. Bigarren Araba Euskaraz-eko etekinak, berriz, garraioaren arazoa neurri batean konpontzeko izan zen.

Hain justu ere, garraioarena da Assa Ikastolak betidanik izan duen arazo garrantzizkoena. Izan ere, Arabako Errioxako 22 herritako umeak hartzen ditu ikastolak, eta herri horiek txikiak edo ertainak izateaz gainera, denak nahiko sakabanatuta daude. Herri bakoitzetik hiruzpalau ume hartu behar dira, eta autobusek egunero 300 km inguru egin behar izan ohi dituzte. Zerbitzu egokia eskaintzeko hiru linea ditu Assa Ikastolak, eta zerbitzu horretarako izugarrizko

normalkuntza plan bat egitea eskualdean. "Ikastolak hezkuntzari dagokion atala betetzen du, euskaltegiak ere berea egiten du... baina halako aterki bat behar da denari forma emateko", dio. Hartara, kalean euskarari "azken bultzada" ematea falta da Lapueblan, erabilera nahikoa baxua baita. Assa Ikastolako aurreko zuzendariaren irudiko, euskara gizarteak bere egiten duen mementoan suspertuko da erabilera.

Etorkizuneko erronkak ere, hein batean, bide beretik doaz. Ikastolak euskara eta euskal kulturaren aldeko ildotik jarraituko du. Baina ez da erronka bakarra, prefosta. Besteak beste, honako erronkak ditu etorkizunari begira: garraioa ordaintzeko dirulaguntzak lortzea; euskararen erabilera ikastolaren barruan %100era igotzea eta kanpoan ere horretarako guneak lortzen saiatzea; eraikineko instalakuntzak hobetzea gelak egokitu; 0-3 urteko bitarteko haur hezkuntza ezartzea; Lanbide Heziketa martxan jartzea; eta teknologia berriak egunero-kotasunean modu egokian txertatzea.

"Sustraiak errotuz joan dira"

25 urte hauetako balorazioa egiterakoan, ikastolako arduradunek poztasuna sentitzen dute. "Txiki izatetik, egitasmo handia izatera pasa da", dio Llanok. Hori guztia esfortzu handiaz eta jende askoren laguntzaz egin dela nabarmen du, eta hori "harro" egoteko modukoa dela gaineratu. "Ikastolak guztion beharra duen moduan, ikastola ere laguntzeko prest dago beti".

Hasieran zeuden beldurrak edo mamuak uxatzen joan dira urteen poderioz, eta denborarekin egitasmoa sendotuz joan da. "Sustraiak errotuz joan dira", dio Urkizak.

Hemendik aurrera, beraz, errotutako sustrai horiek indartsu jarraitzeko lanean jarraitu beharko dute Assa Ikastolakoek, bederen beste 25 urte osasuntsu segi dezan. Zorionak eta zorte on!



alegia, "gu zer gara?". Herriko guraso batek erantzuna bilatu zuen: "Beraiek euskaldunak ziren eta nahi zutena zen beraien seme-alabek euskara berreskuratzea. Modurik argiena ikastola sortzea zen".

Oztopoak gailenduz

Hasierako urteetako arazorik handiena umeak topatzea izan zen, ikastola txikia zelako oso. Zeregin horretan herriak asko lagundu zuen, eta ikastolaren aldeko ahalegina erabatekoa izan zen. Aipatzekoa da garai hartan frankismo garaiko Eskola Nazionaleko gelak itxi egin behar izan zituztela, ume guztiak ikastolara joaten zirelako.

Ondoren, eraikinaren diru beharrak etorri ziren, eta urtez urte finantziario iturria arazo bilakatu zen. Hasierako unean erakundeek eta Udalak lagundu zuten, eta Ikastolen Elkartearen babesa ere garrantzitsua izan zen laguntzak lortzeko. Edonola ere, oztopoei aurre egiteko Araba Euskaraz ezinbestekoa izan dela dio Urkizak. "Araba Euskaraz




azpiegitura behar du. "Zeharo beharrezkoa da, ordea. Ikastolak ez baitu etorkizunik ume horiek gabe", azpimarratu du Llanok. Haatik, garraio zerbitzuak ez du dirulaguntzarik jasotzen (Hezkuntza sailak apur bat ematen du), eta hori dela eta, gaur egun oraindik ikastolaren arazo ekonomikoaren iturri nagusia jarraitzen du izaten.

Euskararen erabilera bultzatzeko erronka

Garraioaren arazoaz gain, Lapueblako ikastolaren ardura nagusienetako bat euskararen erabilera suspertzea da. Urkizaren ustetan, beharrezkoa da

ARABA EUSKARAZ



Baikor aritzen da Angel Olalde aurtengo "Araba Euskaraz"

edizioari buruz, baita euskararen etorkizunaz ere. "Irakaskuntzaren kalitatea bermatzen etengabe ematen ari diren urratsak sendoak dira eta bide horretatik jarraituko du Bastida Ikastolak -dio antolakuntzako kideak.

Proiektua gauzatzen ari da eta etorkizunean nabaritutako da, ez bairik gabe. Euskarak denon

beharra du eta zalantza

barik Araba Euskaraz egunean herritarren erantzuna paregabea izango delakoan gaude". Leloari jarraituz, "Uzta hartu uztartuaz", ekainaren 20an Bastidan euskararekin hitzordua daukagu, hortaz.

-Zenbat jende ibili da aurtengo "Araba Euskaraz" eguna antolatzen?, Zer-nolako harrera izan du herrian?

Araba Euskaraz moduko jaietan jende asko aritzen da lanean. Hasiera batean taldetxo bat badago ere osatzen joaten da jaia hurbildu ahala. Kopuru zehatza ematea zaila da, desberdindu behar baita iraunkorki lanean ari direnak, tarteka ari direnak eta oso garrantzi handia duten beharren arabera laguntzen ari direnak ere.

Ezin dugu ahaztu Bastida herriaren tamaina, eta udan jende zehatza gainezka egon arren, normalean, 1.100 biztanle inguru duen herria dela, eta Araba Euskaraz jai handiaren prestaketan herritarrak ematen ari diren erantzuna pozik egoteko modukoa da.

ANGEL OLALDE, KOORDINATZAILEA

BASTIDAN, EKAINAREN 20an



Araba Euskaraz-eko talde iraunkorra



Toponimia erakusketa

-Noiz hasten da horrelako festa handia prestatzen?

Oionen burutu zen aurreko Araba Euskaraz amaitu bezain pronto hasi ziren prestateta eta girotze lanak. 2003ko udan zehar hainbat ekitaldi burutu ziren udatiarrak bertan zeudela aprobetxatuz. Abuztuan bertan egin zen aurtengo edizioak duen logotipoaren (gure lagun "hostotxoa") aurkezpena eta ordurako hainbat jende zegoen buru-belarri sartuta antolaketa lanetan. Kontuan hartu behar da Araba Euskaraz ez dela egun batean egiten den festa eiraldia, hots, asmoa hori baino gehiago dela, hau da, euskararen beharra azpimarratzea eta erabilera bultzatzea; beraz, Araba Euskaraz urtean zehar euskal kulturari eman nahi zaion bultzadaren gailurra baino ez da eta egun horretan herritarrak euskaraz goza daitezen aukera bat da, alaitasunez eta elkartasunez.

-Egunean bertan jasoko den dirua zertarako erabiliko da?

Duela 25 urte Bastida ikastola 7 ikaslerekin sortu zenetik gaur egun 134 ikasle duen ikastolak erabiltzen dituen lokalak zegoen azpiegitura aprobetxatuz osatu dira, gehienetan zeuden gelak erdibituz. Beraz, egun, oso txiki geratu da eta irakaskuntzak dituen beharrak asetzeko

arazo larriak daude bertan.

Garrantzitsua da kalitatezko irakaskuntza eskaintzea eta, era berean, beharrezkoa da azpiegitura egokia izatea. Gaur egun kalitatea bermatzen eta hobetzen ahalegintzen ari gara eta arlo horretan ematen ari garen urratsak azpiegituran ere eman beharrean gaude. Horrek edifizio berri bat eraikitzea behartu eta bultzatu gaitu eta horixe da, hain zuzen, aurtengo Araba Euskaraz honen helburua, hain beharrezkoa den edifizio hori egin ahal izateko lehenengo bultzada izatea, alegia. Irakasle gela eta bulegoa banatzea, jolastoki bat izatea eta inolako luxurik gabeko gela txukunak izatea.

-Zenbat jende kalkulatzen duzue gerturatuko dela?

Zaila bada ere 45.000 pertsona hurbilduko direlakoan ekin genion jaiaren prestatetari eta kopuru horri zuzendutako guneak prestatzen hasi ginen. Kopuru horretan gustu anitzeko kolektiboak egongo direla kontuan hartuta, erakargarri eta gustura egoteko moduko egitaraua eta ibilbidea prestatzen aritu gara.

Toloño magalean dagoen inguru zoragarria da aurtengo Araba Euskaraz jai egunean hurbilduko den jende orok gozatu ahal izango duena eta

aparkalekuetatik zirkuituko sarrera gertu dago. Zirkuituan zehar eguzkia eta itzala eta, nola ez, naturaz gozatzeko aukera izango dugu. Azken finean, denontzat erakargarria den parajea ezagutzeko eta eguna ongi igarotzeko aukera izango dugu.

-Zeintzuk dira aurtengo edizioaren ezaugarriak? Eta aurreko edizioekin alderatuta berritasunak?

Arabako Errioxan muga egiten duen Bastida herriak, bere izenak dioen moduan, bastioi bat da. Toponimiari erreparatuz gero euskarak berak izan duen garrantzia garbi agertzen da. Euskararen berreskurapenerako dauden zailtasunak ugariak dira, hala ere, aspaldi hasitako lanak bere fruitua ematen ari dira. Ez da erronka erraza, baina ilusioa ez da falta eta kementsu ari da bertako jendea.

Ezaugarriei dagokienez, egitarau orekatua diseinatzeko saiatu gara ume, gazte, heldua izanik ere, eta denon gustukoa izango den zerbait prestatzen ahalegindu gara, betiere euskaraz bizitzeko eguna izan dadin. Helburu bikoitza du, beraz, Araba Euskaraz jai egunak: euskarak duen garrantzia eta inguru horretan behar duen laguntza azpimarratzea batetik, eta ikastolak berak dituen beharrei eta bereziki beharrezkoa den ikastola berriaren eraikuntzak ekarriko duen inbertsioari aurre egin ahal izateko diru kopuru bat eskuratzea, bestetik. Hor dago erronka eta horregatik azpimarratu nahi dugu Araba Euskaraz ez dela egun bakar bat eta ez dela ekainaren 20an amaituko. Hasiera baino ez da, hortaz, izan ere aurrerantzean, herrian bertan ezezik, inguruan eta oro har Araban euskararen berreskurapenak izango duen beste gertaera gogoangarria izatea espero dugu.

Ekainaren 5ean

ALBOKA T

edurne begiristain
argazkiak: edorta sanz

Euskal Herriko
albokari guztiek
hitzordua dute
hilaren 5ean
Zalduondon. Izan
ere, bertako
kultur elkarteak
eta Otazuko
Sorginetxe kultur
elkarteak
antolatuta,
Alboka Topaketa
Herrikoia egingo
da. Aurtengoa
hirugarren edizioa
da: iaz Albainan
izan zen, eta duela
bi urte Otazun.

OPAKETAK ZALDUONDON

Jose Antonio Martinez Oses Alboka Topaketen antolaketa lanetan buru-belarri ibili da azken hilabeteotan. Albokazale amorratua izaki (urteak daramatza albokak egiten eta jotzen), ilusio handiz ari da soinu-tresna tradizional honen aldeko jaia prestatzen. Topaketak Araban antolatzeko ideia, duela hamar bat urte Hernanin egiten hasi ziren alboka topaketen harira otu zitzairen Sorginetxe kultur elkartekoei. Jai polita izaten dela diosku Osesek, giro ezin hobea sortzen baita. "Nahiago izaten dugu herri txikietan egitea, Gasteizen egingo bagenu xarma edo giroa galduko litzatekeelako...", dio.

Jende guztiari irekitako festa da, euskal giroan egiten dena. Baina, ez bairik gabe, topaketen xede nagusia albokaren gainean egun egiten ari den guztia jakitera ematea da, Osesek azaldu digunez. Era berean, musika tresna tradizionalak erabiltzen dituzten musikarien topagune ere bada. Iaz esaterako, Senegaletik, Galizatik edo Irlandatik musikariak joan ziren Albainan egindako alboka topaketetara, nork bere herriko soinu-tresnak jotzeko. Aurten ere atzerriko lagunak bisita izango dute Zalduondon: Sardiniako

musikari batzuek laudema joko baitute. Osesek azaldu digunez, laudemak albokaren familia berekoak dira, baina aldaera batzuk dituzte: klarinete hirukoitzen taldekoak dira, hiru kanaberaz eginda daudelako.

Hori ez da izango, ordea, Alboka Topaketetan egongo den ikuskizun bakarra, goizeko hamaiketatik aurrera eguna ekitaldiz bete baitute antolatzaileek. 11.30etan kalejira egingo dute herriko karriketatik barna. Festa giroan murgildu ostean, kontzertua egongo da eguerdiko 13.00ean, bertan gaur egun albokaren munduan egiten ari diren aurrerakuntzak ezagutzeko parada egongo delarik. Gainera, hiru alboka zozketatuko dituzte, une honetan dauden hiru alboka mota, hain justu.

Herri-bazkaria arratsaldeko hiruretan hasiko da: urtero legez, babarrun goxoak dastatzeko parada izango dute bertara hurbildutakoek. Liseriketa egin ahal izateko, dantzaldia izango da bazkalostean. Gainera, oso dantzaldi berezia izango da, baikotzak eramandako soinu-tresnarekin emanaldia inprobisatuko baitu. Arratsaldeko 19.00etan, berriz, Sardiniako musika doinuek jaia girotuko dute.



Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIAZUN

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizenziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxo: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

IZARRA TABERNA - JATETXEA

BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

> GEU

GASTEIZKO EUSKALDUNON ALDIZKARIA

PUBLIZITATEA

945 22 21 53

XIXILU JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2

Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

bar • restaurante • albéniz

Errege atea, 9 - GASTEIZ

Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

UZTINTZA

KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120

Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Albokaren MUNDUAN


Azken urteotan albokaren erabilerak gora egin du nabarmen Euskal Herrian. Eginkizun horretan zeresan handia izan du Ibon Koteron musikariak, baina baita Juan Mari Beltranek, edota Betagarri eta Exkixu taldeek ere. Soinu-tresna hori musika egiteko erabili izanak bere berreskurapenean lagundu du, ezbairik gabe. Hala irizten dio halaber Osesek. Berak, Hertzainak taldeko Josu Zabala trikitilariak behin erran zion esaldi bat gogoan du: "Alboka XIX. mendetik XXI. mendera igaro da, apenas XX. mendetik pasa gabe". Arrazoia zuen Zabalak. Izan ere, gaur egun Euskal Herrian alboka sarri erabili ohi baitute musikariek, eta horrek ere aukera eman du soinu-tresna hori hobetzeko. "Alboka asko afinatu da, bada jendea albokak profesionalki egiten dituen... musika-tresna berreskuratzen ari gara", dio Osesek.

Hain justu ere, Osesek berak lan eskerga egiten du tresna horren berreskurapenean, urteak baitaramatza albokak eskuz egiten. Areago, alboken inguruan ere ikertzen du, doinu eta forma berriak sortze aldera, batik bat. Azaltzen digunez, alboka baten eskala ohikoa honakoa da: La, Si, Do, Re, Mi, Fa diesia. Baina berak beste bi alboka mota sortu ditu: bata, La, Si, Do diesia, Re, Mi, Fa diesia eskala duena; eta bestea, Sol, La, Si, Do, Re, Mi, Fa diesia duena. Lehenengoa Koteronek berak erabili du bere azken diskoan.

Albokaren gainean esperimentatu eta gauza berriak sortzearen aldekoa da Oses, eta ez dio axola sortzen dituen albokak ohiko albokatzat ez hartzeak. "Soinu-tresna garatu ahal izateko gauzak aldatu behar direla uste dut. Berdin zait ohiko alboka ez dela esaten badute, hala delako... eta zer? Alboka berria da, beste tresna batzuekin jotzeko aukera ematen duena..."

Albokaren sorrera ezkutua

Albokaren historiak mintzatzerakoan, ez da erraza teoria zehatz eta fidagarri bat inon topatzea. Batzuen ustetan, alboka




Gorbeia, Aizkorri eta Urbasako mendateen inguruetan jaio zen, artzainek erabilita. Beste batzuen aburuz, berriz, neolitiko aroko gizarte ibiltarietan du sorrera, baina baita artzain giroetatik jaioa ere. Hori bai, teoria denek bat egiten dute esaterakoan alboka festarako tresna gisa erabili dela betidanik, hots, dantza egiteko eta ongi pasatzeko. Hala islatzen du, bederen, egun kalejiretan, fandangoetan eta arin-arinetan ematen zaion erabilerak.

Osesek ere ez du argi zein izan daitekeen albokaren jaioterria, eta "teoria unibertsalarekin" bat egiten duela diosku. Hau da, Euskal Herrian ez ezik, mundu osoan ere musika egiten dela eta alboka moduko tresnak erabiltzen dituztela; hala, Indiako suge-sorgintzaileek antzeko zerbait erabiltzen dute, Marokon ere albokak daude, baita Grezian eta Sardinian ere. Berez albokarekin duten harremana zein den ez dakiela dio Osesek, baina harremana izan badutela argi du.

Materialak, arnasketak eta beste

Albokaren inguruan luze hitz egin dugu orain arte. Baina nola egiten da alboka

bat? Zein osagaiz eginga dago? Nola jotzen da? Galdera horiei guztiei erantzun die Osesek. Alboka ilargierdi formako zurezko uztarri baten gainean egiten da, zeina alboka osatzen duten soinu-tutu eta bi adarren euskarria den. Bi soinu-tutu ditu: txikienak arnas egiteko balio du, eta handienak soinua handitzeko funtzioa



Maria Ocio.

MURGILDUZ

betetzen du. Aireak ihes egin ez dezan, erleen argizari ezaltzen dira juntura guztiak, silikonak baino emaitza hobeak ematen dituelako, Osesen esanetan. Garai batean, soinu-tutuak kanaberaz eginda zeuden, baina egun zura mardulez eginak daude, kalitatea dezente hobetuz.

Osesek diametro desberdinetako albokak egiten ditu. Itxuraz ohiko albokak diruditen arren, osagaiak aldatu dira eta kalitate aldetik askoz hobeak dira egungo albokak.

Bestalde, alboka jotzen ikasteko, arnasa egiteko modu berezi bat

ere ikasi behar dela esaten da. Osesen irudiko, ez da zaila amasketa metodo hori ikastea: "Latzagoa da erritmoa eta melodia hartzea", dio. Alboka jotzeko modu desberdinak daude, baina oro har haxe da arnasa egiten ikasteko bide on bat. Lehenik eta behin, sudur zuloetatik arnasa hartu egin behar da; gero, masailak haizeaz bete egin behar dira, ostean sudurreko arnas bidea zabaltzeko egiten delarik. Azkenik, ezpainetatik haizea bota egin behar da. Eta modu horretan albokaren soinu gozagarria entzun ahal izango da.



Oses, bizitza osoan albokari lotuta

Jose Antonio Martinez Osese (lagunentzat, Oses) gazte-gaztetatik ikasi zuen alboka jotzen. Hasiera batean Gasteizko Adurtza auzoko dantza taldean txistua jotzen hasi zen, eta modu horretan folkllore-musikan murgil-



tzeko aukera izan zuen. Hamabost bat urte zituenean Jose Mari Elorriaga ezagutu zuen, Gasteizko Prado kaleko tailerrean albokak eta dultzainak egiten zituen artisautza. Harengandik edan zuen albokak ezagutzeko interesa eta urtetan lanbide bilakatuko zena; Arabako Foru Aldundiari ikerketa beka bat eskatu ostean, Iruñera joan zen, Fernando Lakuntzarekin batera soinu-tresnen gainean ikastera.

Urteen ostean, musika-tresnen mundua albo batera utzi eta Arte eta Lanbide eskolan eskultura ikastera sartu zen. Bertan bospasei urte eman zituen. Baina bere buruak eta bihotzak soinu tresnetara itzultzea eskatzen ziotenez, gaiari atzera heldu zion, eta Lakuntzarekin Iruñean ikasitakoa albokari eta txalapartan praktikara eraman zuen. Horrelaxe hasi zen 1990. urtearen bueltan albokak ekoizteari, kalitatezkoak gainera.

Urte batzuk lehenago, 1988 urte aldera, gaur egun bere bikote Maria Ocio ezagutu zuen, eta harekin Sorgin Festa ikuskizuna sortu zuen. Euskal Herriko txoko guztietan jotzen zuten, panderoa, txalaparta eta albokarekin. Ikuskizun hura oso ezaguna egin zen eta jai guztiak girotu egin zituen. Duela bi urte alaba bat izan zuten, Garazi, eta orduz geroztik etxean bestelako ikuskizuna dutenez, Sorgin Festa albo batera utzi behar izan dute, egunen batean bueltatzeko itxaropena galdu gabe, noski.

EKAINA. AGENDA

erakusketak & lehiaketak & ikastaroak & mintegiak & jardunaldiak

⇒ **San Prudentzio Argazki Lehiaketa XXXV**

Ignacio Aldekoa Kultura Etxean
Ekainaren 13a arte

⇒ **32. Udako Ikastaroak 04**

Udako Euskal Unibertsitatea
www.ueu.org (informazioa & matrikula)
Biarritz: uztailak 05-09 / Iruñea: uztailak 19-23
Matrikula epea: ekainaren 27ra arte

⇒ **JUAN ZELAIA IV. SAIKERA SARIA (IRUÑEA, 2004)**

Euskaraz idatzitako edozein gai buruzko saiakerak edota iritzi lanak.
Antolatzailea: Pamiela etxea. 948326535 / pamiela@pamiela.org
Epea: abuztuak 31

⇒ **VII. IGARTZA literatura-sorkuntzako beka idazle berrientzat**

(narratibako lanak –eleberrir edo ipuin-bildumak) egiteko proiektuak
Informazioa: Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzua (943028063 / euskera@beasain.net)
Epea: uztailak 1

⇒ **Pedro de Atarrabia XVI. Literatur Sariketa-2004**

(kontakizun laburrak)
Informazioa: Atarrabiako Udala-Kultura Zerbitzua
Epea: irailak 17

⇒ **"Euskal Gizartearen egoera" Saria**

Antolatzailea: Eusko Jaurlaritza
Informazioa: 945018069 /
www1.euskadi.net/estudios_sociologicos
Epea: irailak 24, 12.00etan

⇒ **INKA TXIKIA**

SAURE argitaletxearen baloreari buruzko nazioarteko lehiaketa. Atala: Gidoia.
Oinarriak: www.ed-saure.com
Epea: urriak 23

⇒ **INGURUMENARI BURUZKO ALEGIAK**

SAURE argitaletxearen baloreari buruzko nazioarteko lehiaketa. Umore grafiko eta tira komikoaren atala.
Oinarriak: www.ed-saure.com
Epea: urriak 30

⇒ **5**

MANIFESTAZIOA. KONTSEILUA:

Hizkuntz eskubideak! Denon konpromisoa.
Iruñean, 17.30etan

ALBOKA TOPAKETAK:

Zalduondon. Egun osoan zehar

⇒ **1, 8, 15, 22, 29**

PARRAL TABERNA

ekitaldi kulturalak: kontzertuak, antzerkia, poesia...
Asteartero, 20.30etan

⇒ **15**

KULTUR ERROTA & GEU ELKARTEA eta ALDIZKARIAren eskutik

Biraka dabilen harria, sorkuntzan ari den herria
Ekainak 15. 20.30etatik aurrera PARRALen
KONTZERTUA: "MUGALDEKOAK" ikuskizun poetiko-musikala, Edu Zelaia poeta gazte gasteztarrak bideratua

⇒ **18**

ORTOPHON Ken kontzertua
Ekainak 18, 21.00etan AZKENA ARETOAN
Disco berriaren aurkezpena!!



"MIGRAZIO GUTARRAK" ERAKUSKETA

Arte eta Lanbide eskola eta Montehermoso kulturunea elkarlanean
Argazki, ikus-entzunezko eta eskultura tailerrak
Gaia: loa & insomioa. Ekainak 18-Uztailak 8



⇒ **20**

ARABA EUSKARAZ. Bastidan

GEUREKIN MENDIRA. EKAINAREN 20an

GAROBELÉN, TTUTTURRE (1282 m)
ARDURADUNAK: IÑAKI-EDURNE (945146296)
IRTEERA: LOVAINA PLAZAN, goizeko 9.00etan

⇒ **30**

IRAKURLE KLUBA. HIKAATENEON ARRATSALDEKO 20.00ETAN

Ekainak 30, asteazkena
Arantza Iturbe, Lehenago zen berandu, Alberdania 1995

⇒ **1**

IBILI MUNDUAN (GAZTE BIDAIRIAK) BIDAIA-ERAKUSKETA. 5 edizioa

Ekainaren 1etik uztailaren 31ra bitartera
Tokia: Montehermoso kulturunean
Antolatzailea: Gasteizko Udala

⇒ **20tik aurrera**


EUSKHARANen Iparra-Hegoa aste Kulturala

- Ekainaren 20tik Uztailaren 3ra Aranbizkarran:
Jolasen jaialdia, zinema, umeen txokoa, joko interaktiboak, igerilekua, akuariorika, abesbatzak, senda-belarren ikastaroa, bertso tribial erraldoia, herri kirolak, "arabako euskal hotsak" erakusketa, diaporamak, dantza-jolasak, musika tresnen tailerra, zeramika, kanpo-jolasak, txotxongiloak, antzerkia...
- Ekainaren 23an, asteazkena, 20.00etan Amaia Zentroan:
"Entzuteko irudiak-ikusteko hitzak" Aitor Bengoetxea, Kepa Urbieta, Igor Aranbarri (IKAren eskutik).
- Uztailaren 1ean, osteguna, 20.00etan Beñat Etxepare Aretoa (Iparalde G.E):
Sustrai Colina, Miren Artetxe, Amets Arzallus, Manex Agirre eta Oihane Perea.
- Uztailaren 3an, Aranbizkarra-Aranbide-Arantzabelako jaiak:
19.00etan, Kukubiltxo antzerki taldea. "Ekidazu" antzezlan.
23.00etan, ERROMERIA. Zipotzero taldea.

geugaste@grn.es

idazleen gorpila VI

DEPENDE VI



Joxean Sagastizabal

Mundu honetako gizonoi, oso gauza garrantzitsu bat esan beharrean nago, hona hemen: kantari batek (uste dut bertsolariek ere balio dutela) ez badu...eee...kantari edo bertsolariren batekin ez baduzue ahoko jardunean... jardun, nola esan? Mundu berri batera iritsi nintzen Edurne Zurutuzak nire sexua ahoan hartu zidan egun hartantxe, horra. Ni, egia esan, ibilitakoa naiz, e? Musikaren mundua eta kazetaritzarena nahastuz sortzen den koktelak erraz eramaten ditu gizakiak oheko olgetara, baina hau, Edurnerekikoa, hit-paraden askoooooogorago zegoen zerbait zen; eta zergatia garbi dago: kantatzen dakienak asko daki ezpaingintzaz, ahogintzaz, mingaingintzaz, arnasaz, erritmoaz. Edurnek jotzen zizkidan sinfoniak... amatxo maitea. Gainera frustrazioaren laino artetik atera zen niri esker. Bera bezalako artista batekin ere Josuri ez bazitzaion altxatzen... erremediorik gabeko kasua gizona, zinez.

--Orduan, zuen ezkontza ez zen... burutu, ezta? Ez zen kontsumatu.

--Ez; bueno, Josu musikaria da eta esku trebeak ditu, baina kontsumatu... ba ez.

Lagun maiteok, paradisuen ateak zabalik. Emakume eder batekin "lanean"; aberatsa zen, gainera, eta den-denetik zeukan 170 metroko etxe batean...

--Zer moduz ari zarete Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin egin beharreko Tontorretik-en hirugarren bertsioarekin?

--Josu sutu egin zen, ez du horrelakorik nahi; aitzakia hutsa hainbeste diru eman duen kantari zuku gehiago ateratzeko omen. Eta arrazoi du, baina hirugarren bertsioa egin egingo da.

--Sarri ikusten al duzu espetxean, edo psikiatrikoan?

--Psikiatrikoan dago. Gaur bertan ikusi behar dut, hiru ordu barru.

--Eta nola? Vis a vis?

--Ez, nahiko psikotiko dabil azken honetan; bolada lasaia duenean bai.

--Zer du zehazki?

--Denetik; paranoiak, mota askotako eldarnioak, ukitu eskizofrenikoa, depresio aldiak eta euforiak ere, kasu aparta da psikiatrentzat.

Edurnek alde egin zuen, esan bezala, eta ni biluzgorrikerik geratu nintzen zain bi metroko ohean, Edurnek eta taldeak eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoak grabatutako Tontorretik-en hirugarren bertsioaren lehenengo maketa entzuten gutxienez 20.000 euro balio zituen ekipo batean; a ze adagio joa zidan, portzierto, abiatu baino lehen; piano, piano.

Maite zaitut maite maite
Ez al duzu entzuten nire aienerik
Mendi garaienaren tontorretik
Etsipenez gainezka amodio eske?

Hitz beste eginez, badakizue pertsona bat zenbateraino dagoen ikaratuta neur daitekeela? Bai, 1etik 100era bitarteko eskala baten bidez. Zergatik diodan hau? Edurne gutxienez 98an zegoelako espetxetik bueltan iritsi zenean.

--Zer gertatzen zaizu?

--Josuk igarri egin dit, badaki gure artekoa; bueno, horrenbeste ez; badaki norbaitekin nabilela.

110ean jarri nintzen, hor nonbait.

--Nola? Nola? Ez da posible!

--Ikusi orduko esan dit, builaka, segituan eraman dute arrastaka; nire ezpainen forman, nire ahoskeran, ahoan, bete-betean igarri dit... sinfonian jardun berri nintzela.

Marterako tranbia hartuko nuen orduantxe, baina kontrolatu eta haxe esan nion neure buruari: Josu Arrasti zazpi giltzapean zegoela; barrotetzarrak, burnizko hesiak, alarma elektrikoak zenbateraino ederretsi nituen ez zenidakete sinetsiko. Ustel zedila!

Pentsamenduok lasaiturik maitekiro besarkatu nuen munstroak izu-ikaratutako printzesa, telefonoak jotzen zuen mementoan bertan, eta hura izan zen errekorra txikitu genueneko, gizaki bat (bi) lehenengo aldiz iritsi baitzen 1-100 eskalako 236ra; bestaldeko ahotsak zera zioskun, Josu Arrastik ihes egin zuela, zaindari bat estrangulaturik, biri burua txirtxildurik, hiruri gibela ostikoka leherrarazirik.

Ez al duzue entzuten gure aienerik?

©Joxean Sagastizabal & GEU



URDUÑA, Araban KOKATUTA

JOSEBA MIKEL AGIRRE OAR, ikertzailea

Guztiz ezaguna da Trebiñoko herriaren aldarrikapena. Batzuek, herabeki, Urduñaren egoera administratiboaz eta geografikoaz galdetzen dute, baina hala ere, badirudi ez direla gauzak bere onetik aterako. Nola sortu zen egoera hori, zein ibilbide historikotan oinarritzen da?

30 km² inguruko udalerrri bizkaitar har Arabako lurraldean dago, ipar-ekialdeko haitz handi bat izan ezik, gainerako guztia Aiara inguruetan zehazki; haitz handi horixe da, hain zuzen, Garobel (Salvada) mendizerraren iparraldeko aurpegia. Gailurrak muga egiten du Burgosko Losa/Lautza bailarekin, eta lurralde hau antzina Arabako ermandadearen barnean sartzen zen (1502), autrigoiien lurretan; beraz, euskalduna zen jatorriz. Egia esan, apur bat Arrastaiako lurren gain tolestutako zati batean bezala dago, Garobel eta Gibixio mendizerrek osatzen duten tolesturan edo ebakidura puntuan. Unitate orografikoa osatzen du Aiarako lurrekin, baina historian ez da inoiz bertako kide politiko edo administratibo izan; eta, bestalde, oso berandu arte, ez Urduña eta ez Aiara ez ziren izan ez bizkaitar eta ez arabar.

On Jose Migel Barandiaranek kaleratutako dokumentuetan, XVIII. mendearen amaieran, Urduña erabat euskalduna zela ageri da. Añibarrok, Elizaren predikuez ari dela, XIX. mendearen lehen herenean oso herri euskalduna zela dio, euskaraz hitz egiten zela bertan.

Goi Erdi Aroan, euskal lurrek ez zuten gaur egun duten lurralde antolamendua eta, Antso Handiak bere erresuma zatitu ondoren (1035), euskal lurrek Iruñeko Koroaren agindupeko lurralde batu izateari utzi zioten. Bere seme Fernandori Gaztelako konderria eman zionean, bertako lehen Errege bihurtu zen, Fernando I.a izenaz.

Aiarako herria Aiara familia ahaltsuaren jaurrekioa zen bitartean, XIII. mende hasieran Urduña errege gaztelua zen, eta Gasteiz bezala, Gaztelako erregearen menpe zegoen; horregatik, salerosketa, merkatu eta azoka ugariren gune zen, eta hauen muga zergek eta hamarrenek argi eta garbi erakusten zuten mugako lur izateak zekarzkion onurak. Esate baterako, bertan aritzen zen errege funtzionario bat, Notario karguaren antzekoa betetzen zuena, Gaztelako errege-erreginek izendatutakoa. Horregatik, irrikaz begiratzen zion



Urduñako Aduana etxea (1787-1792 urte artean egina) [Añamendi entziklopedia]

Aiarako jaunak, Aiara bailarako lurralde osoa ez ezik Orozko, Urkabustariz eta Koartango ere bere zituenak. Urrunagotik, Haro leinu ahaltsuko kideek, hau da, Bizkaiko jaunek ere gurariaz begiratzen zioten.

BIZKAIAREKIKO HARREMANA

Gauzak horrela, 1218an Fernando III.a Santuak, garai hartan ohikoa zenez, Lope Díaz de Haro II.a, Bizkaiko Jauna, Urduñako kargudun izendatu zuen Andaluziako hainbat toki bereganatzen lagundu ziolako (Baeza, Jaen eta Kordoba), eta bere alaba Urraka andrearen eskua eman zion. Kargu hark hiribildu edo lurralde bat bizitza osorako bere gain izatea adierazten zuen, baina ez zen kargudunaren ondare bihurtzen. Hau hiltzean, Erregearen boterearen agindupean geldituko zen. Gaztelako Erregearen suhiak, Díaz de Haro, Urduñari Hiri Gutuna eman zion eta, horrela, bere garapena sustatu zuen; Hiribildu titulua eman zion eta Gasteizko forua eman zion Urduñari.

KO Bizkaiko BARRENDEGLA?



Hau hil zenean, haren semeak, Diego Lopez de Harok lurren jabetza horri eutsi nahi izan zion eta beren ondasunen barnean sartu nahi izan zuen. Erregearen tropek hiribildua hartu zuten, errege-erreginen boterea babesteko. Baina, aurrerantzean, gatazka ugari izan ziren eta itunen politika nahiko aldakorra izan zen garai horretan. Horrela, artean Fernando erregea bizi zela, On Diegok 1248an Sevilla hiri garrantzitsua hartzeko borrokan parte hartu zuen eta Errege Alferiz modura sartu zen, kristau osteen buru; baina horrela ere ez zuen berreskuratu Urduña.

Haren semeak, Lope Díaz de Haro III.ak, beste noble batzuekin bat eginik, aurre egin zion Alfontso X.a Jakitunari, Fernando III.a Santuaren semeari, eta berriro Urduña gaztelaren esku gelditu zen.

Hala ere, Alfontso X.a hil zenean (1284), dinastiaren ikuspegitik nahiko egoera berezia sortu zen; koroaren oinordekoa, Fernando de la Cerda, lehentxeago hil zen eta honen osaba Antsok erregetza eskuratu nahi zuen, bere ilobak, Cerdako infanteak, baztertuz. Horretarako, Lope Díaz de Haro III.ekin ituna egin zuen, hau oso jaun ahaltsua zenez. Koroa bereganatu ondoren eta Antso IV.a Ausarta izena hartuta, berriro ere Haro leinuko kide haren laguntza behar izan zuen benemerineei irabazteko, hauek Afrikatik lurreratu baitziren zuela gutxi. Berriro ere Haro familiakoak Urduña eskuratu zuten.

Urduña Bizkaiarekin lotuta egon zen laugarren aldia Pedro Ankerraren eta honen ugazanaia Enrike II.a Trastamarakoaren arteko gerra fratizidan (1369) izan zen. Azken hau bere benetako anaiarekin, Don Tellorekin, elkartu zen, garai hartan ezkontza bidez Bizkaiko Jaun bihurtu zena, Haro leinuaren barnean gizonezko oinordekorik jaio ez zenez, oinordekoa izango zen emakumearekin, Joana de Lara Díaz de Harorekin, ezkondu baitzen. Horrek are gehiago indartu zuen Urduña Bizkaiko Jaurerriaren barnean, semerik izan ez zutenaz,

haien iloba bat aldi berean Bizkaiko Jauna eta Gaztelako erregea izango baitzen, Enrike Trastamarakoaren semea hain zuzen, Joan I.a izenpean (1379-1390).

Bitartean Aiarak Jaurerri independente izaten jarraitu zuen, bere foruei eutsi zien eta García Lopez de Ayala Mariskalaren bidez, Urduña bere menpean izateko azken ahalegina egin zuen; hala ere, ahalegin horrek porrot egin zuen; Arabako ermandade jaio berriaren barruan sartu zen, 1463an Rivabellosan egin ziren Batzar Nagusietan, Laudio 1491 arte kanpoan gelditu bazen ere. Hasierako urteetan, ermandadearekin izan zituen harremanak nahiko istilutsuak izan ziren, baina denborak aurrera egin ahala, Aiara familiakoek pisu handiko postuak bete zituzten probintzia horretan. Baina hori beste kontu bat da.

©Joseba Mikel Agirre & GEU



Lope Díaz de Haro, "Buruberoa" -"Cabeza Brava"-, Bizkaiko VI. Jauna (1214-1236) [Añamendi entziklopedia]

Itzulpena: Aziri

SILUM SOUNDZ KOLEKTIBOA, DJ & ARTISTEN EREMU BERRITZAILEA

Musika, proiektzioak, internet, graffitiak, pegatinak eta poesiak, bakar batzuk aipatzearren, beldurrik gabe nahas daitezke Silum Soundz kolektiboan.

Arteak daukan esanahi zabalenean koka daiteke 1.995. urtean sortu zen ekimen berritzaile hau. Musika oinarri nagusia duelarik, Iñaki Marquinez proiektuaren sortzaileak (dj Cubo) dio "hasi ginenean Donostiako Sirope-ko jendea geneukan erreferentziatzat, mundu mailan horrelako ideiak islatzen hasiak ziren baina hemen ez zegoen mugimendurik eta horregatik, ekin genion plataforma libre eta ireki honi".

Iñaki Marquinez, dj Cubo



Silum Soundz plataformak musikarekin esperimentatzen du eta bere euskarria, aldiz, internet da. Orain arte kolektiboan aritutako lagunek musika saioak bideo proiektzioekin nahastu dituzte. Areto itxietan (Cairo eta Dublin tabernetan) aritu ohi dira, baita hainbat museorekin kolaboratu ere (Artium, Arte Ederretakoa), Donostiako Elektronikaldia Jaialdian (2001-2002), Fundación Rodríguez en edo Artelekun. Dena den, Iñakik azaltzen duenez, "nahiago izaten dugu gurea arte instituzionalarekin ez nahastea. Izan ere, batzuetan aukera hori espediente bat betetzeko besterik ez da eta gure eskaintza irekia eta doakoa egin nahi dugu. Guk gustuko duguna egiten dugu eta jendeak entzun dezan nahi dugu, behintzat aukera hori izan dezan".

Egun teknologiak ireki dituen ateein eta aukerekin jolasean eta azterketan

dabil Silum Soundz. Maiztasunez plataforma honetan aritzen diren hainbat artista eta dj ditugu honako hauek: dj Cubo, Coda, Beñat, Gotxi, Txema dardara, Txarly Brown, Makala, Lord Sassafras, dj Moog, Txabi Funtsak, dj Amsia, Tim O'neill eta Ibon Saez de Olazagoitia.

www.silmunsoundz.net

Ideiarik ideia, Silum Soundz kolektiboak emanaldiez gain proiektu berri bati ekin dio. Denbora da Iñigo Recio 'Boris' eta Iñaki Marquinez plataformaren web-orriaren jardunean dabiltzala. "Ilusio handia daukagu gure web-orrian. Bertan musikarien, produktoreen eta dj-en saioak eta mp3 delakoak jasoko dira, bai eta datu base zabal bat ere. Web-orriaren baitan kolektiboaren interneteko irratia dago entzungai.

Kolektiboaren Interneteko Irratia

-Noiz entzun ahal izango da irratia berri hau? Ze programazio dauka?

-Orain arte frogako bertsioa izan dugu entzungai, honetan 9 dj-ren saioak zeuden, baina ekainetik aurrera abian egotea espero dugu. Zenbait atal izango ditu bai berriak irakurtzeko bai merchandising-erako eta nola ez, dj-en saioak entzun eta jaitsi ahal izateko. Gure ustetan jendeak eskaintza hau eskertuko du, finean norberak nahi duen saioa hauta dezake, baita dj horiei buruzko zehaztapenen berri emango dien lotura aurkitu ere. Ez da ohiko irratia, hau da, pizten duzuna eta zuzenean esatariak dauden horietakoa, baizik eta entzun nahi duzuna aukeratu beharrekoa.

-Internetek aukera zabala eskaintzen duela argi dago, baina nola hurbildu

erabiltzailea zuengana? Informazio gehiegik ez ote du zuenganako bidean galaziko?

-Egia da zehatz-mehatz gure irratiira heltzeko euskarriarekin trebatua egon beharra dagoela. Erabiltzailearen profila oso zuzena da kasu honetan, hots, konexio ona izan behar du, ordenagailuarekin lan egiten dutenak... gu dauden mila aukeraren artean bat izango gara eta. Memento gazteleraz egin dugu, baina ingelesez eta euskaraz ere egin nahiko genuke, ahalik eta zabalkunde eta oihartzun handiena izan dezan.

-Zuek eskaintzen duzuen musika merkatu komertzialetik at dago. Zenbaitetan kultura musikalik ez dagoela kritikatu izan duzue.

-Bai, horrela da. Hemen Euskal Herrian oro har ez da Ingalaterran edo Amerikako Estatu Batuetan bezalako jakinmin musikalik sekulan egon. Hemengo musika iraultzaileagoa izan da, hots, musikaren bidez ideiak azaldu dituen. Neurri handi batean, Fermin Muguruzari esker, eta Kortatu, Negu Gorriak... eta abarren garapenari esker, jendea beste musika mota ezberdinetara irekitzea lortu da, baina hala eta guztiz ere, munduko beste hainbat tokitan mugitzen eta gertatzen ari denetik oso urrun gaude.

-Zuek eskaintzen duzuen irrati alternatibo honek jendeak egun musikaz duen ideia aldaraztea bilatzen al du?

-Ezin dezakezu jendea "dokrinatu". Hau norberaren kontua da, interesatzen zaizunaren eta jakin nahi duzunaren arabera mugituko zara. Nolanahi ere, egia da jendea oso eroso dagoela sofán botata, Gran Hermano bezalako programak ikusten edo Los 40 Principales irratsaioa entzuten. Hau da, erromatarren garaian bezala, non lehoiak eta ogia ematen zizkieten eta eurak pozik bizik ziren. Dagoena ezin daiteke kolpez aldatu, guk gure harri-kozkorra ekarri nahi dugu. Gustatuko litzaiguke jendeak entzun dezan eta gustuko duen edo ez deliberatzea.



Beñat



Txema eta Beñat



ISIDEO & CUBO

OTSAILAK 20 OSTEGUNA
JUEVES 20 FEBRERO 2003
22.00 P.M. 0€

CAIRO STEREO CLUB
ALDRE 9, VITORIA-GASTEIZ

CAIRO X3. 3in ANIVERSARIO
WWW.ISIDEO.NET - WWW.ISIDRFX.NET - WWW.CRETRR.NET

BIÑAT ISIDEO + CUBO

EXPLORADORES SÓNICOS
SONIC EXPLORERS
SONIARIEN IKERTZAILEAK

ABENDUAK 20 LARUNBATA
SABADO 20 DICIEMBRE
CAIRO STEREO CLUB 22.00 P.M. 0€
ALDRE 9, VITORIA-GASTEIZ

WWW.SILUMSOUNDZ.NET

TIM O'NELLIN ISIDEO & CUBO

HONORARIOS Y VOUCHERES EN LAS BOQUILLAS CONTRA LAS FUEGOS MALIGNOS MULTIMEDIALES. GUERRA DE LA VIDA.

JUEVES SANTO,
17 ABRIL 2003
DUBLIN HONDARTZA.

VIRGEN BLANCA GASTEIZ www.cafedubin.com

COPA CUBO MAKALA

CAIRO STEREO CLUB 3in ANIVERSARIO
ALDRE 9, VITORIA-GASTEIZ
HARTXORAK 27 OSTEGUNA
JUEVES 27 MARZO 2003
22.00 P.M. 0€

REPRESENTACIÓN BARROCO
ELECTRONIC DISPONIBLE ES

ADIERA DEN
ASTASUNA

ISIDEO & CUBO

UNA NOCHE DE ROCK Y PROYECCIONES KABALES

MAIATZAK 22 OSTEGUNA
JUEVES 22 MAYO 2003
22.00 P.M. 0€

CAIRO STEREO CLUB
ALDRE 9, VITORIA-GASTEIZ

bidaia

testua & argazkiak: david alvez

Praha

urrezko hiria

Fitxa

Kokapena: Europako erdi-erdian. Biztanleria: 1.200.000.

Hizkuntza: txekiarra (leku turistiko gehienetan ingelesa).

Txanpona: koroa (koruna česká (Kc) / Euro bat = 32 Kc).

Barrutiak: Praha 15 barrutitan banatuta dago. Erdialdea eta leku turistiko gehienak P1 eta P2-an daude.

Garraio publikoa: Oso merkea da, badaude txartelak hiru edo lau egunekoak. Tranbia, metro eta autobuserako balio du txartel berak.

Nondik nora

Gasteiz – Madril – Praha

Nola

Autobusez Madrilera eta zuzen hegazkinez Prahara.

(Aukera dago Bilbotik joateko baina ez zuzen)

Eramatekoa

Pasaportea (nahiz eta Europa Batasunean egon).

Visa txartela komenigarria da edozein lekutan ordaintzeko, hala ere edozein txartelekin aukera duzu kutxazain automatikoetatik dirua ateratzeko. Arropari dagokionez, baldin eta zein urtarotan

bidaia den; eguraldia hemen bezalakoa da, pixka bat hotzagoa.

Plana

Astebeteko bidaia gomendatzen dizugu, gauza asko eta asko baitaude ikusi eta bisitatzeko.

Egun batez ondo legoke Carlo Vivari edo Pilsen hirietara joatea; hau Praharen bertan erabaki dezakezu.


Aholkuak

Lo egiteko lekua erdialdean ez badago aukera ezazu metro geltokitik hurbil dagoen bat.

Dirua aldatzeko ez dago arazorik, bulego asko daude eta; ez aldatu kalean. Dena den, 2005 urtean euroarekin hasiko dira, nahiz eta txekiarrek beranduago izango dela esaten duten.

Ezaugarriak

Oinez ezagutu beharreko hiria da Praha, plazak, parkeak, arkitektura, historia, jendea, eraikinak... Ibiliaren ibiliaz erreparatuko diozu duen mami guztiari. Gauza asko daude ikusi eta bisitatzeko, baina ikusgarriena kaleetan eta kaleetatik barrera ikusiko duzu, oso bazter liluragarriak baititu.



Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztekoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confeciones
Pinedo
JANTZIAK
San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena
Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia
Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

Moldava ibaiaren aldamenetan sortu eta zabaldu zen hiria; bi gazteluren artean, Hrad, Katedrala eta Errege-Jauregia bere baitan daudela, eta Vysehrad edo Goiko Gaztelua.

Horien artean zonalde batzuk azpimarratuko ditugu eta gero zuk zeuk antolatu ibilaldiak.

Onena Plaza zaharrean dagoen turismo-bulegoan informazioa eskatuz: gaztelera ere aurkituko duzu. Hau izan daiteke erreferentziako puntua, gero hemendik leku gutzieta mugitzeko.

Moldava ibaiaren alde batean:

Auzo txikia (*Malá Strana*): Barrokoko jauregiz beteta, bai eta galtzeko kale eta bazterrez ere.

Petrin mendia: Bistak izugarriak dira. Bertan Eiffel Dorrearen erreplika txiki bat dago.

Kampa irla: Lasai egoteko zonaldea; erdialdeko plazan turistarentzako dendak daude.

Gaztelua eta Gazteluko auzoa: Derrigorrezko bisitaldia, eguna hor pasatzeko. Katedrala, Errege-Jauregia... eta ez galdu Urrezko kalekoa (Zlata Ulicka)! Bertan ere museo desberdinak daude:



aipatzekoa, jostailuena.

Letna Parkea: iparralderuntz abiatuz parke hau topatuko dugu. Udako parkea deritzote; bertan jatetxe eta museo desberdinak aurkituko dituzu. Bistak ere egundokoak.

Holsovice: Beste 'Praha' bat, XIX. mende bukaeran haruntza zabaldu zen hiria; egun bertoko dendak, jatetxeak, kafetegiak... daude eta turista gutxiago.

Bestaldean:

Vysehrad edo Goiko Gaztelua: Barruan, parkeaz eta garagardoa lasai hartzeko bertako terrazaz gozatu.

Hiri berria edo Nové Město: Hiriko giroa hemen biziko duzu, Wenceslao plaza eta bere



ingurunean.

Hiri zaharra edo Staré Město: Turistikoena, jendez gainezka dago beti; gal zaitez bere kaleetan eta gozatu bere bazterrez. Plaza zaharrean dorrearen begiratokira igo, justu Praharen erlojurik ospetsuenaren ondoan sarrera eta informazio bulegoa daude.

Karlos zubia: 17 zubik zeharkatzen dute hiria, baina hau da ezagunena; bakarrik oinezkoentzat; bertan kale-ikuskizunak topatuko dituzu, baita salmenta-postu bitxiak ere.

Josefov edo judutar auzoa: Praharen gettoa; sinagogak eta hileria bisitatu ditzakezu; kafetegi eta denda bereziak ere badaude.



Kafetegiak

Literatur kafetegiak oso garrantzitsuak izan dira Prahako literaturan, bai eta nazionalismoaren eztabaiden lekuko ere. Komunismo garaian itxi behar izan zituzten, baina 'Terciopelo' iraultzaren ostean batzuk berriro ireki dituzte. Batean sartu eta atzeruntz egiten duzu denboran, apaintekak eta giroak berak liluratuko zaituzte.

Cafe Slavia (Smetanovo nabrezi, 2): Ibaia eta gaztelua ikus ditzakezu; frogatu eskainiko ditzuten likorea.

Cafe Louvre (Narodni trida, 20): Artez inguraturiko lekua, erakustareto eta guzti.

Café Europa (Vaclavské náměstí, 25): Mende hasierako ezaugarriak mantentzen ditu; bertatik Wenceslao plazaren giroaz jabe zaitezke.

Café Fran Kafka (Siroká, 12): Oso polita eta deigarria. Judutar auzoan bertan.

Garagardotegiak (Pivovar, Pivnice)

Ekialdeko herrietan bezala, oso garagardozaleak dira txekiarrek. Hirian taberna desberdinak aurki ditzakezu baina ez galdu bi hauek:

U FLEKU. Oso ezaguna. Areto eta patio desberdinak daude edateko eta bazkaltzeko. Hor bertan egiten duten garagardoa dastatu behar duzu. Barruan ere kabareta dago; ikusteko erreserba egin behar duzu. Eta hori ez da guztia, garagardo museoa ere ikus dezakezu. Izugarria.

Pivnice U Sv. Tomáše. Europako garagardotegi zaharrenetariko bat; ohikoa, areto eta terraza desberdinekin. Bohemiako bazkaria.



Gauetz

Wenceslao plazaren inguruan jatetxe eta taberna desberdinak daude, jazz-klub batzuk eta diskotekaren bat. Hemendik Hiri Zaharrera eta Judutar auzora abiatuz lokal desberdinak topatuko dituzu; hemen giroa deigarriagoa da.

Aukera baldin baduzu Hiri Zaharrean badaude antzerki txikiak; hor txotxongilo ikuskizun izugarriak ikus ditzakezu.

Erosketak

Tipikoena bohemiako kristala (dagoeneko ez da hain merkea), txotxongiloak eta garagardo pixterak dira. Denda gehienetan prezioa beheratu dezakezu. Bestetik ere badaude denda ugari antzigoaleko gauzak eta liburu zaharrak saltzen dituztenak, batez ere judutar auzoan.

SARU
Zure arropa eta oinetakoak
www.sarudenda.com
Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

PIVRA TABERNA
Eguzkidun, astrolabietatik ostalderak
JANTOKI BEGETARIANO
SAN FRANCISCO KABERKOAREN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL. 945 27 65 33

TXUKUNA
EUSKAL HERRIKO EHUNAK:
bainu-batak, oihalak,
sukaldeko zapiak,
patchwork ohe-estalkiak...
Errege-Erregina katolikoen kalea, 11

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tinoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

Refresca tu euskara

Arana, 30 945 25 24 00
 Mardones, 8 945 26 35 40
 Peru, 8 945 21 75 08

æk
 rekin

5 eta 3 orduko ikastaroak.
 2 asteko barnetegiak.
 Familia barnetegiak.

www.aeknet.net

**udako
 ikastorak**

bai & by
 land

Florida kalea, 8 Tl. 945 150 155

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

Bacalao Giraldo

ERAMAN ETA JAN
 "kalitatea eta
 erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
 Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
 Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
 GASTEIZ

 **ERROTA**
 HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
 Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
 e-mail: errotadental@euskalnet.net

**eguzkitarako
 nobedade**



eguzkitarako nobedade
 guztiak Mendia Optikan,
 ... zatoz ikustera

**ZERBITZU
 OPTIKOETAN
 1a**

MENDIAOPTIKA
 DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria plaza
 Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
 GASTEIZ

Bertakoari so!



ERLANTZ URTASUNen

txokoa

Zaldiarango musulmana

Agur eta erdia, irakurle. Duela mila urteko "Araba" Nafarroaren baitan zegoen antolaturik. Bere lurak, ibarrak, lautadak, mendialdeak nafar eskualde batzuk ziren; eta horietako inguru eder bat, Zaldiaran. Bada, kondaira zaharrak dioenaren arabera, historiaren iluntasunean murgilduz gero aspaldiko garaietarat iritsiren gara non, bertzeak bertze, arabar jendeak euskal sinesmen zaharrak baitzituen buruan, edota arabar judua zen, kristaua, musulmana ere bai. Guziek, bidenabar derragun, amankomuneko ezaugarria zuten: nafarron hizkuntza, euskara.

Antza, Zaldiaran alderdian, gatazka baten ondorioz kristau zaldun bat larriki zauriturik geratu zen. Musulmanek akitu beharrean, haatik, eta musulmanak zintzoak ohi diren euskal usadioari jarraikiz, jauntto hura zaindu, sendatu, sendotu eta beraien artean bizi izaiten utzi zuten. Neska bati lotu eta, hondar hau, bi seme-alabaz erditu zen. Urteak igaro eta, adinekoak omen ziren gurasoak bisitatzeko aitzakiaz kristau handikia joan zen, berehala itzuliren zelakoan. Tabakoaren bila, badakizue...

Barandiaran, Azkue eta enparauek jaso zutenaz bezainbatean, musulman andere maitagarria zain dago oraindik, Zaldiarango horma puskatu batzuen artean eseririk, altzoan umeak dituela. Alta, batzuetan, duela ehun urtekoek topo egiten zuten berarekin, baita mintzatu ere, gaixoa. Arabako musulmanak euskaldunak ziren, bertokoak zirelaketz. Nafarrak.

DIOCESANAS-MENDIZORROTZAKO

OSTALARITZA ESKOLA

GAZTA TARTA LIMOI SALTSAREKIN ETA MUGURDIEZ LAGUNDUTA (8 lagunentzako)

8 LAGUNENTZAKO OSAGAIK:

❖ Gazta biguna	300 g.
(San Millan erakoa)	
❖ Esnegain likidoa	200 g.
❖ Esne hautsa	70 g.
❖ Azukrea	120 g.
❖ Irina	30 g.
❖ Arrautzak	200 g.
❖ Koipea	60 g.



PRESTAKUNTZA

Eltze batean azukrea, irina eta esne hautsa nahastuko ditugu. Hagatxo batekin ondo nahastuko dugu guztia.

Esnegaina, gazta biguna arrautzak eta gurin urtua nahastuko ditugu gero. Dena ondo nahastuta, berotzen jarriko dugu, hagatxoarekin eraginez. Nahasketa horrek epeldu egin behar du, baina egostera iritsi gabe (60 °C). Hauts erako lehen nahasketari erantsiko diogu bigarrena. Multzo osoa ondo-ondo nahasteko eragin ondoren, molde batetik hasiko gara. Molde hori aluminio paperaz estaliko da aurrez eta hondoan gailetekin egindako oinarri fin bat ezarriko da.

Ertzak ez ditugu goraino beteko. Labean bero handiegirik gabe, 160 °C-ra egingo dugu 40 minutu inguruan, betiere tartaren neurrien arabera. Hozten utziko da eta hurrengo egunean aterako da moldetik.

SALTSAREN PRESTAKETA

✓ Limoi-ura	150 g.
✓ Ura	50 g.
✓ Azukrea	250 g.
✓ Arrautzak	250 g.
✓ Gurina	200 g.

Limoi-urari, urari, azukreari eta arrautzei irakinaldi bat emango zaie. Irakin ondoren, epeltzen utziko da, 35-40°C-ra iritsi arte, eta gurin zatiak erantsiko zaizkio. Irabiagailuan birrinduko da guztia eta gerorako utziko da.

PLATEREAN AURKEZTEA

Limoi saltsarekin igurtziko da hondoan, ateratzeko unean mikrouhin labean epelduko da gazta tartaren zati bat eta hondoaren gainean kokatuko da, eta amaitzeko, mugurdiekin hornituko da.

itzulpena: aztiri

GEU ALDIZKARIA & ELKARTEAREN eskutik

KULTUR ERROTA

Literatura & musika ikuskizuna

EKAINAK 15, PARRAL-EN, 20.30ETAN
liburuaren azala sartu irudi gisa

MUGALDEKOAK

Literatur proposamen honek baditu hainbat aurpegi ezberdin, mugak bezainbertze. Izan ere, muga eta bere inguruabarra ditu ardatz: Euskal Herria bitan zatitzen duen muga eta mugaz bertaldeko mugalariak elkartzen dituena; mugako arimak eta bertakoen istorioak; gizarte honetako oztopo gaindiezinak; barne-mugak eta bertan habitatzen duten izakiak. Bistan da kanpotik nahiz barnetik ezarritako mugen arabera mugitzen garela, bizi garela. Bizi honen lau pareten artean.

Egitasmoak Edu Zelaietaren bigarren poema liburua du abiapuntu, Mugaldekoak, SUSA argitaletxeak 2004ko maiatzean argitaratua. Hala ere, letrak, poemak, liburutik aterako ditugu ikusle-entzuleekin partekatze asmoz. Mugak hausteko antidotorik hoberena komunikazioa baita. Eta harreman horretan ironia, paradoxa eta umorea ez dira faltako. Ezta ikusle-entzuleak ezustean harrapatuko dituzten zenbait osagai ere, tartean musika frontierizoa dela. Poemak, kantuak eta kantupoemak mugaldeko folk-pop eta countryrekin batean. Azken buruan, gure baitako sentimenduek nola mugatzen-mugitzen gaituzten azaleratu nahi dugu. Geure mugen talaiatik. Nola egin, bertzela? Agian, mugalariak izanen bagina, nahi genukeelarik gaineratik salto egiteko, nahi genukeelarik azpitik pasatzeko, libreago ere bizitzen ahalko ginatke. Zoriontsuago, apika, gure ttikitasunean. Biziago sentitzeak dakarren muga inguruan.

Beñardo Goietxe (gitarra, ahotsa). Bera.
Edu Zelaieta (testuak, errezitatzaila). Gasteiz.
Raul Garcia (harmonika, ahotsa). Bera.

GEU aldizkariko harpidedunentzako oharra:

ASTEON aldizkaria eskuratu nahi izatekotan hemendik aurrera Arriaga megadendan aurkitu ahal izango duzue.



**GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA**

HIKAATENEO-N ARRATSALDEKO
20.00ETAN

Ekainaren 30a, asteazkena
Arantza Iturbe, Lehenago zen berandu,
Alberdania 1995

GEUREKIN MENDIRA
EKAINAREN 20an
GAROBELN, TXARLAZO (938 m)



ARDURADUNAK: IÑAKI-EDURNE
(945146296)
IRTEERA: LOVAINA PLAZAN,
goizeko 9.00etan

KANGEUROAK

Zerrenda honetan agertu nahiez gero eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu zure ordutegia: 945222153 / geugaste@grn.es
Aldi berean, zerrendan agertu nahi ez baduzu, abisua eman.

Ordutegi guztiak

Goizez

Ilune. 945010322

Arratsaldez

Patxi. 652743205

Gauetz

Nerea. 658733934

Asteburuak

Nagore. 945281124

Marta. 606415235

Gau batez (afariak, ezkontzak,...)

Miryam. 656761588

geuelkarte@grn.es • geugaste@grn.es



GIROK ONENA, JUDIMENDIKO JAIETAN!



Pepe Ubis plaza, 9



Sta. Luzia kalea, 5



Pepe Ubis plaza, 13